

Irailaren 26ko 41/2006 FORU DEKRETU, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua onartzen duena.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako foru dekretua eta beronek onartzen duen erregelamendu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran zerrendatu egiten dira foru dekretuak onartutako erregelamenduaren jatorrizko zenbait artikulutan aldaketak sartu dituzten xedapenak.

AURKIBIDEA

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.....	6
I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.....	6
1. artikulua. Aplikazio eremua.	6
2. artikulua. Eskeraren edo hasierako idatziaren edukia.	6
2 bis artikulua. Berrikuspen prozedura etetea adiskidetasunezko prozedura abiatuz gero.	7
3. artikulua. Ordezkaritza.....	8
II. KAPITULUA. ERREKURRITUTAKO EGINTZA ETETEA.....	8
1. <i>sezioa. Arau orokorrak</i>	8
4. artikulua. Errekurritutako egintzaren exekuzioa etetea.	8
5. artikulua. Etete kasuak.....	9
6. artikulua. Etendura eskatzea.	9
7. artikulua. Etenduraren bermeak.....	11
8. artikulua. Etendura onartu edo ukatzearen ondorioak.	12
2. <i>sezioa. Etendura automatikoa bermeak jarrita</i>	13
9. artikulua. Etendura automatikoa.	13
3. <i>sezioa. Etendura bestelako bermeak aurkeztuta</i>	14
10. artikulua. Etendura bestelako bermeak aurkeztuta.	14
11. artikulua. Bermeak eratzea.....	15
4. <i>sezioa. Bermeak aurkeztetik salbuetsitako etendura</i>	16
12. artikulua. Bermeak aurkeztetik salbuetsitako etendura.	16
13. artikulua. Bermeak aurkeztetik salbuetsitako etendura tramitatu eta ebaztea.	17
II. TITULUA. BERRIKUSPEN PROZEDURA BEREZIAK	18
1. KAPITULUA. ZUZENBIDEAN ERABAT DEUSEZAK DIREN EGINTZAK BERRIKUSTEKO PROZEDURA.	18
14. artikulua. Hasiera.	18
15. artikulua. Tramitatzea.....	18
16. artikulua. Prozedura ebaztea.	18
II. KAPITULUA. EGINTZA ETA EBAZPEN DEUSEZTAGARRIAK KALTEGARRITZAT JOTZEKO PROZEDURA	19
17. artikulua. Hasiera.	19
18. artikulua. Tramitatzea.....	19
19. artikulua. Prozedura ebaztea.	19
III. KAPITULUA. EGINTZAK EZEZTATZEKO PROZEDURA	19
20. artikulua. Hasiera.	19
21. artikulua. Tramitatzea.....	20

22. artikulua. Prozedura ebaztea	20
IV. KAPITULUA. AKATSAK ZUZENTZEKO PROZEDURA	20
23. artikulua. Akatsak zuzentzeko prozedura	20
V. KAPITULUA. OKERREKO SARREREN ITZULKETA	21
1. <i>sezioa. Xedapen orokorrak</i>	21
24. artikulua. Itzulketa prozedura eskatzeko zilegiztatuak eta itzulketarako eskubidearen onuradunak.	21
25. artikulua. Okerreko sarrerak itzultzeko kasuak.....	22
26. artikulua. Okerreko sarreraren itzulketarako eskubidearen edukia.	22
2. <i>sezioa. Okerreko sarreraren itzulketarako eskubidea aitortzeko prozedura, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 228.1 artikuluan jasotako kasuetan</i>	23
27. artikulua. Hasiera.....	23
28. artikulua. Tramitatzea.....	23
29. artikulua. Prozedura ebaztea.....	24
3. <i>sezioa. Okerreko sarreraren itzulketa egitea</i>	24
30. artikulua. Itzulketa egitea.....	24
III. TITULUA. BERRAZTERTZE ERREKURTSOA	24
I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.....	24
31. artikulua. Errekurtsua eta erreklamazioa aldi berean aurkeztearen ondorioak.	24
32. artikulua. Berraztertze errekurtsuaren ondorioak beste errekurtsu batzuk jartzeari dagokionez.	24
II. KAPITULUA. PROZEDURA	25
1. <i>sezioa. Hasiera</i>	25
33. artikulua. Hasiera.....	25
34. artikulua. Espedientea ikusgai jartzea.	25
2. <i>sezioa. Tramitazioa</i>	25
35. artikulua. Prozedurako interesatuak.....	25
3. <i>sezioa. Ebazpena</i>	25
36. artikulua. Ebazpena jakinaraztea.....	25
IV. TITULUA. ERREKLAMAZIO EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK	25
I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.....	25
1. <i>sezioa. Antolaketa, eskumena eta funtzionamendua</i>	26
37. artikulua. Eskumena.	26
38. artikulua. Osaera.....	26
39. artikulua. Auzitegiko kideen eginkizunak.....	27
40. artikulua. Funtzionamendua.....	27
41. artikulua. Barne araudia	28
42. artikulua. Bileren aktak.....	28
43. artikulua. Antolaketa administratiboa.....	29
44. artikulua. Banakako jarduketak.....	29
2. <i>sezioa. Abstenitzea eta errefusatzea</i>	30
45. artikulua. Abstenitzea.....	30
46. artikulua. Errefusatzea.....	30
3. <i>sezioa. Erreklamazioen zenbatekoa eta metaketa</i>	31
46 bis artikulua. Erreklamazioaren zenbatekoa.....	31
47. artikulua. Metatzea.....	33
4. <i>sezioa. Interesatuak</i>	33
48. artikulua. Interesatuak.....	33
49. artikulua. Interesatuaren heriotza.....	34
50. artikulua. Ordezkaritza.....	34
II. KAPITULUA. PROZEDURA OROKOR EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK.....	34
1. <i>sezioa. Prozeduraren alderdi nagusiak</i>	34
51. artikulua. Auzitegiaren jardun orokorra.	34
52. artikulua. Informazioa jasotzea, eta kopia ziurtatuak lortzea.....	35
53. artikulua. Agiriak aurkeztea, banakatzea eta itzultzea.	35
54. artikulua. Jakinarazpenak.....	35
55. artikulua. Prozeduraren kostuak.....	37
2. <i>sezioa. Auzialdi bakarreko prozedura</i>	37
1. azpisezioa. Hasiera	37

56. artikulua. Erreklamatzeko idazkia	37
2. azpisekzioa. Tramitazioa	38
57. artikulua. Erreklamaturako espediente administratiboa osatzea	38
58. artikulua. Alegazio epea	39
59. artikulua. Froga	39
60. artikulua. Txostenak eskatzea	40
61. artikulua. Prozedurako gorabeherak	41
62. artikulua. Berrikuspena luzatzea	41
63. artikulua. Tramitazio laburra	41
3. azpisekzioa. Ebaztea	42
63 bis artikulua. Ebazpena	42
64. artikulua. Deuseztatzeko errekurtsua	43
3. sekzioa. <i>Errekurtsuak bide ekonomiko-administratiboan</i>	43
65. artikulua. Berrikusteko errekurtsu berezia	43
4. sekzioa. <i>Partikularren jarduketei edo omisioei buruzko erreklamazioen prozedura</i>	43
66. artikulua. Partikularren zerga arloko jarduketei eta omisioei buruzko erreklamazioen prozedura	43
V. TITULUA. EBAZPENAK EXEKUTATZEA	45
I. KAPITULUA. EBAZPENAK EXEKUTATZEA	45
1. sekzioa. <i>Ebazpen administratiboak exekutatze arau orokorrak</i>	45
67. artikulua. Ebazpen administratiboak exekutatzea	45
68. artikulua. Egintza eteteko aurkeztutako bermeen murrizpen proportzionala	47
2. sekzioa. <i>Ebazpen ekonomiko-administratiboak exekutatze arau bereziak</i>	47
69. artikulua. Ebazpena betetzea	47
70. artikulua. Ebazpen administratiboak luzatzea	47
3. sekzioa. <i>Ebazpen judizialak exekutatze arau bereziak</i>	48
71. artikulua. Ebazpen judizialak exekutatzea	48
72. artikulua. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren sententzien ondorioak luzatzea	48
II. KAPITULUA. BERMEEN KOSTUA ITZULTZEA	48
1. sekzioa. <i>Bermeen kostuaren itzulketaren hedadura</i>	48
73. artikulua. Aplikazio eremua	48
74. artikulua. Kostua itzuli behar den bermeak	49
75. artikulua. Bermeen kostua zehaztea	49
2. sekzioa. <i>Bermeen kostua itzultze araua</i>	50
76. artikulua. Organo eskudunak	50
77. artikulua. Prozedura hastea	50
78. artikulua. Tramitatzea	50
79. artikulua. Prozedura ebaztea	51
80. artikulua. Exekutatzea	51
XEDAPEN GEHIGARRIAK	51
LEHENA. Izaera publikoko beste sarrera batzuk itzultzea	51
BIGARRENA. Zuzenbide publikoko beste diru sarrera batzuen bilketa kudeatzeko egintzak	51
HIRUGARRENA. Udal zergen arloko erreklamazio ekonomiko-administratiboak	52
LAUGARRENA. Zuzenbidean erabat deuseza deklaratzeko Gipuzkoako udalek tramitatutako espedienteetan	52
XEDAPEN IRAGANKORRAK	52
LEHENA. Etetea bide administratiboan berrikusteko prozeduretan	52
BIGARRENA. Okerreko sarreren itzulketa	52

ZIOEN AZALPENA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra onartu izanak berekin ekarri du zerga alorreko hainbat xedapen eraberritu eta eguneratzea kontzeptu eta figura berriak sartuz eta orain artekoak gure garaiko premietara egokituz. Horrela, foru arau horren V. tituluak, administrazio bidean egiten diren berrikuspen prozedurak biltzen dituenak, ezeztapenaren kontzeptua sartu du lehenengo aldiz horien barruan, eta prozedura

arloko hainbat berrikuntza ere gehitu ditu epeak bateratuz eta lehendik zeuden hainbat oztopo kenduz administrazio bideko prozedurak arinak izan daitezzen, betiere eraginkortasunaren eta ekonomia administratiboaren printzipioekin bat.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren bidez onartutako sistema berriarekin, aurreko foru arau orokorra garatzen zuten erregelamenduak zaharkituta geratu ziren, neurri batean, gai honi dagokionez. Hori kontuan, beharrezko iritzi da erregelamendu horiek V. tituluan jasotako prozedura eta printzipio berrietara egokitzea eta egoera aprobetxatzea prozedurak modu isolatuan garatzen zituzten hainbat xedapen testu bakar batean biltzeko. Xedapenak testu bakar batean biltze horrek, gainera, gai honen inguruko erregulazioa koherenteagoa, osoagoa eta ordenatuagoa izatea ahalbidetu du.

Azpitarratu beharreko lehen berrikuntza nagusia da bai berraztertze errekurtsorako eta bai erreklamazio ekonomiko-administratiboetarako jarraitu beharreko prozeduraren erregelamenduzko garapena foru araudi batek egiten duela aurreneko aldiz. Garapen hori ez zen erabatekoa izan aurreko foru arau orokorrari zegokionez, eta orain erabat garatzeak segurtasun juridiko handiagoa dakar zergadunentzat.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 27/2005 Foru Arau Orokorren espirituari helduz, dekretu honen bidez onartzen den erregelamenduak baditu teknologia berrietara egokitzearekin zer ikusia duten hainbat nobedade ere; besteak beste, erregelamenduak ezartzen du berrikuspen prozeduretan itzulketa bat eskatzen denean nahitaezkoa izango dela kontu kodearen zenbakia ematea, eta horrek txekuek ohiko ordainketa modua izateari uztea dakar berekin.

Foru dekretu honek onartzen duen erregelamenduak bost titulu ditu, lau xedapen gehigarri eta bi iragankor.

I. tituluak alderdi orokorrak biltzen ditu, denak ere, erregelamendu honetan garatzen diren prozedura guztiei aplikagarriak. Bi kapitulutan banatuta dago: lehenengoan erregelamenduan aurreikusten diren prozedura guztietarako orokorrak diren gaiak hartzen ditu, hala nola, eskaeraren edo hasierako idatziaren edukia, akatsak zuzentzeko prozedura eta ordezkari bidez jarduteko era. Bigarren kapituluak errekurritutako egintzak eteteko modu desberdinak garatzen ditu: etendura automatikoa berme jakin batzuk jarrita, etendura bestelako bermeak aurkeztuta eta, azkenik, exekuzioa eten ahal izatea bermeak erabat edo zati batean aurkeztu gabe.

II. tituluak, "Berrikuspen prozedura bereziak" deiturikoak, ondoko gaiak hartzen ditu izendapen horren azpian: zuzenbidean deusezak diren egintzak berrikusteko prozedura, interesatuen aldeko egintza eta ebazpen deuseztagarriak kaltegarritzat jotzeko prozedura, ezeztapen prozedura, akatsak zuzentzeko prozedura eta, azkenik, okerreko sarrerak itzultzekoa. Horien artean ezeztapen prozedura da nabarmendu beharrekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrek sartu zuena eta aurreneko aldiz hemen garatzen dena.

III. tituluak berraztertze errekurtsua garatzen du foru araudiaren barruan, lehen aldiz garatu ere. Izan ere, orain arte estatuko araudia aplikatzen zen ordeko izaeraz, Ekonomia Itunean ezarritakoari jarraikiz.

IV. tituluak erreklamazio ekonomiko-administratiboak jasotzen ditu. Honako gaiak arautzen dira bertan, bi kapitulutan banatuta: batetik, Foru Auzitegi Ekonomiko-

Administratiboaren antolaketa, eskumenak eta funtzionamendua eta aplikazio orokorreko beste hainbat alderdi; eta bestetik, bide ekonomiko-administratibotik jarraitu beharreko prozedura, bereziki nabarmentzekoak izanik auzialdi bakarreko prozedura, berrikusteko errekurso berezia, eta partikularren jarduketei eta omisioei buruzko erreklamazioen prozedura. Azken hau bereziki eratuta dago erreklamazioetan ageri diren bi aldeak normalean atxikipen eta jasanarazpen obligazioengatik lotuta dauden zergapekoak direnean.

Azkenik, V. tituluak ebazpen ekonomiko-administratibo nahiz judizialak betearaztea arautzen du, bai eta bermeen kostua itzultzea ere.

Horiek horrela, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuko foru diputatuak proposaturik eta Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorriz, Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT

Artikulu bakarra. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua onartzea.

Onarturik geratzen da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua, foru dekretu honetan eranskin gisa ageri dena.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA. Xedapenak indargabetzea.

1. Foru dekretu hau indarrean jartzen denean honako xedapenak indargabeturik geratuko dira:

a) Urriaren 15eko 73/1991 Foru Dekretua, zerga izaerako okerreko sarrerak itzultzeko prozedura arautzen duena, ondoko artikulua izan ezik: 8., 9., 10., 12. eta 13. artikulua, bigarren xedapen gehigarria, hirugarren xedapen gehigarria, laugarren xedapen gehigarria, eta bosgarren xedapen gehigarriaren 3. apartatua.

b) Martxoaren 28ko 25/2000 Foru Dekretua, Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa arautzen duena.

c) Urriaren 31ko 85/2000 Foru Dekretua, zerga zorren exekuzioa eteteko eta zorrak proportzionalki murrizteko aurkeztutako bermeen kostua itzultzeko prozedurak arautzen dituena.

2. Era berean, indarrik gabe geratuko dira foru dekretu honetan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

AMAIERAKO XEDAPENAK

LEHENA. Arauak emateko ahalmena.

Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuko foru diputatuari baimena ematen zaio Foru Dekretu honetan eta honen bidez onartutako Erregelamenduan xedatutakoa garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

BIGARRENA. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetea iragan ondoren jarriko da indarrean.

ERANSKINA

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGEN FORU ARAU OROKORRA, EGINTZAK ADMINISTRAZIO BIDETIK BERRIKUSTEARI DAGOKIONEZ, GARATZEKO ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUENA

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

I. kapitulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Erregelamendu honen xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra garatzea administrazio bidetik egiten den berrikuspenari dagokionez, aztergai harturik zergak aplikatzeko egintza eta jarduketak eta zerga zigorrak ezartzeko egintzak, eta orobat, egintza baten exekuzioa eteteko aurkeztutako bermeen kostua zerga Administrazioak itzultzeari dagokionez.

2. Erregelamendu hau Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 1. artikuluan ezartzen duenari jarraituta aplikatuko da.

2. artikulua. Eskaeraren edo hasierako idatziaren edukia.

1. Erregelamendu honetan araututako prozedurak interesatuak eskatuta hasten direnean, eskaerak edo hasierako idatziak honako datuok jaso beharko ditu:

a) Interesatuaren izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea. Ordezkarri bidez jarduten denean, datu horiek guztiak ordezkariarenak izango dira.

b) Errekurtsoa edo erreklamazioa zein organori aurkezten zaion edo prozedura hastea zein organori eskatzen zaion.

c) Inpugnatzen den nahiz espedientearen xede den jarduketa edo administrazio egintza, hura eman den eguna, espedientearen zenbakia edo inpugnatutako egintza administratiboa identifikatzen duen gako alfanumerikoa, eta espedienteari buruzko gainerako datu jakingarriak.

d) Zer eskatzen duen interesatuak.

e)¹ Nola jaso nahi diren jakinarazpenak, salbu eta Administrazioarekin harreman elektronikoak izatera behartuta dauden zergapekoak direnean. Azken horiek eta, horretara behartuta egon gabe, bitarteko horiek erabiltzea aukeratzen dutenek, beren helbide elektronikoa jakinarazi beharko dute, aldez aurretik ez badute egin, jakinarazpena bidali edo eskura jarri izanaren abisua haren bidez jaso dezaten. Interesdunak ez baditu bitarteko elektronikoak aukeratzen, helbide bat adierazi beharko du jakinarazpenen ondorioetarako.

f) Idatziaren edo eskaeraren lekua, data eta sinadura.

g) Itzulketa eskatzen denean, eskatzaileak espresuki adierazi behar du, 20 digituak jarrita, zein kode duen dirua sartzeko aukeratzen duen banku kontuak. Zenbaki hori idatzian ageri ez bada, itzuli beharreko kopurua Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko datu baseetan interesatuaren izenean ageri den edozein banku kontutan ordainduko da.

h) Araudi aplikagarrian ezartzen den beste edozein datu.

2.² Eskabideak edo prozedura hasteko idatziak ez baditu betetzen aurreko apartatuan aipatutako beharkizunak, eta, betiere kendu gabe Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 219 bis artikuluan xedatutakoa eta erregelamendu honetan akatsak zuzentzeko berariaz ezarritako arauak, pertsona edo entitate interesdunari hamabost eguneko epea emango zaio, errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita, akatsa zuzendu dezan edo behar diren agiriak aurkeztu ditzan, eta ohartaraziko zaio errekerimenduari jaramonik egin ezean jarduketak artxibatuko direla eta eskabidea edo idatzia aurkeztu gabekotzat joko dela.

2 bis artikulua. Berrikuspen prozedura etetea adiskidetasunezko prozedura abiatuz gero.³

Baldin eta beharrezko gertatzen bada, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, hamabigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa betez, haren V. tituluaren arautzen diren berrikuspen prozeduretako bat etetea adiskidetasunezko prozedura bat tramitatzeari, orduan Espainiako agintari eskudunak, zeina aipatzen baita zuzeneko zergen esparruan aplikagarriak diren adiskidetasunezko prozeduren Erregelamenduko 2. artikuluan (azaroaren 3ko 1794/2008 Errege Dekretu bidez onartu zen erregelamendu hori), organo berrikusleari komunikatu beharko dio zer errekurtso administratibo edo judizial jarri dituen eskatzaileak edo adiskidetasunezko prozedura abiatzeko eskaeran ageri diren gainerako

¹ Letra hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

² Apartatu hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

³ Artikulu hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

inplikatuak. Orobat, ezagutzen duen beste edozein errekurtsoren berri ere eman beharko dio organo berrikusleari.

Era berean, aipatutako agintari eskudunak adiskidetasunezko prozeduraren amaiera komunikatu beharko dio organo berrikusleari, berrikuspen prozeduraren etendura bertan behera utzi eta ebazpena eman dezan. Prozedura amaitzeko erabakiaren kopia igorriko dio hori komunikatzeko.

3. artikulua. Ordezkaritza.

1.⁴ Ordezkaritza bidez jarduten denean, ordezkaritza behar besteko ordezkaritza frogatu beharko du, baina horrek ez du eragotziko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 239.1 artikuluan eta hurrengo 2. apartatuan berrespenari buruz xedatutakoa aplikatzea.

2. Organo eskudunak hamabost eguneko epea emango du, errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita, ordezkaritza frogatzen duen agiria aurkezteko edo agiri horrek izan litzakeen akatsak zuzentzeko. Epe berean, interesatuak aukera izango du ordezkaritza beraren izenean egindako jarduketara berresteko eta geroko jarduketari begira ordezkaritzaren frogagiria aurkezteko.

II. kapitulua. Errekurritutako egintza etetea

1. sekzioa. Arau orokorrak

4. artikulua. Errekurritutako egintzaren exekuzioa etetea.

1. Berraztertze errekurtsioa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkezte hutsak ez du etengo inpugnatutako egintzaren exekuzioa.

2.⁵ Salbuespena egingo da zehapenak borondatezko epean inpugnatzen direnean, haien exekuzioa etenda geratuko baita, bermerik aurkeztu beharrik gabe, administrazio bidean irmoak izan arte. Zerga zehapenen ordainketengatik Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 42.4 artikuluan aurreikusten dituen erantzukizunak ez da etengo apartatu honetan jasotakoaren arabera.

Etendurak ez du eraginik izango une horretara arte egindako zerga-bilketa jarduketetan.

3. Dena den, interesatuak eskatzen badu, auzipeko egintzaren exekuzioa etengo da, ondorengo artikuluan jasotako kasuetan eta kapitulu honetan ezarritako baldintzak betez.

⁴ Apartatu hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

⁵ Apartatu hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

4. Berariazko arau batean arautzen diren etete kasuak arau horretan xedatutakoari jarraituta bideratuko dira.

5.⁶ Erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu baino lehen berraztertze errekurtsua aurkeztu bada eta errekurtsu horren ondorioz prozedura eteten bada bide ekonomiko-administratiboan ondorioak dituzten bermeak aurkeztuta, etendura azken prozedura horretan mantenduko da.

5. artikulua. Etete kasuak.

Aurreko 4. artikuluan xedatutakoa hala izanik ere, inpugnatutako egintzaren exekuzioa honako kasuetan etengo da pertsona interesatuak eskatuta:

a) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 222. artikulua 2 eta 3 apartatueta aurreikusten dituen bermeetako bat aurkezten denean, erregelamendu honen 9. 10. eta 11. artikuluetan ezarritako eran.

b) Bermeak erabat edo zati batean aurkeztetik salbuetsita, baldin eta ebazteko organo eskudunak uste badu exekuzioak kalte konponezinak edo konponbide zailekoak ekar ditzakeela, erregelamendu honen 12. eta 13. artikuluetan jasotakoari jarraituz.

c) Bermerik aurkezteko beharrik gabe, baldin eta ebazteko organo eskudunak uste badu inpugnatu den egintza ematean akats aritmetiko, material edo gertatzezkoa egon daitekeela.

d) Inpugnatutako egintzen xedea zerga zor bat edo kopuru likido bat ez denean, baldin eta ebazteko organo eskudunak irizten badu exekuzioak kalte konponezinak edo konponbide zailekoak ekar ditzakeela.

6. artikulua. Etendura eskatzea.

1. Hasitako berrikuspen prozedura ebazteko eskumena duen organoari aurkeztu behar zaio etendura eskaera, eta organo horrek etendura tramitatu eta ebazteko eskumena ere izango du.

2. Etendura idatzi independente batean eskatu eta aurkeztuko da, ahal bada errekurtsu edo erreklamazioa egiteko idatzia aurkeztearekin batera edo, bestela, errekurtsu edo erreklamazioa ebatzi aurreko edozein unetan. Aurretik edo aldi berean aurkeztutako errekurtsu bati edo erreklamazio ekonomiko-administratibo bati lotuta ez dauden etendura eskaerek ez dute eraginkortasunik izango, eta errefusatuta geratuko dira ez onartzeari buruzko erabaki espresurik zertan eman gabe.

3. Etendura automatikoa bermea aurkeztuta eskatzen denean, eteteko eskaerarekin batera honako agiriak aurkeztuko dira:

a) Bermea abal modura eratzen bada, hura formalizatzen duen jatorrizko agiria erantsiko da. Agiri horretan abal emaileen sinadurak jaso beharko dira, fede-

⁶ Apartatu hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko bost apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

emaille publiko batek egiaztatuak beti, eta egintza gauzatu duen Administrazioaren aurrean askietsiak edo autentifikazio elektronikorako mekanismo baten bidez sortuak egongo dira. Testuan elkartasun klausula agerraraziko da, bai eta eskusio eta zatiketa eskubideei uko egiten zaiela ere. Agiri horren ordeztu bere irudi elektronikoa aurkeztu ahal izango da balio eta eraginkortasun berberarekin, betiere digitalizazio prozesuak egiazkotasuna eta osotasuna bermatzen baditu.

b) Bermea dirua edo balore publikoak Foru Diruzaintzan gordailatuz eratzen bada, gordailuaren frogagiria aurkeztuko da.

c) Bermea Gipuzkoako beste zergadun batzuek aurkeztutako fidantza pertsonal eta solidario modura eratzen bada, eta betiere bermatu beharreko zorrak 1.500 euroko kopurua gainditzen ez badu, fidantza benetan ezarri dela erakusten duen agiria aurkeztuko da. Agiri hori fidantzatuak eta fidatzaileek izenpetuko dute, eta horiek identifikatzen dituen dokumentazioa erantsita aurkeztuko da.

Fidatzaileek bi pertsona fisiko edo juridiko izan beharko dute, Gipuzkoako zergadunak biak, eteteko eskatzen den prozeduran interesik gabeak eta zerga obligazioak egunean dituztenak.

Agirian fidatzaileen izaera solidarioa adieraziko da, eta bertan argi utziko da eskusio eta zatiketa eskubideei uko egiten zaiela.

d) Bermea kauzio aseguruaren modura eratzen bada, ziurtagiria aurkeztu beharko da honako datuok adierazita: aseguru entitatearen izen osoa, interesatua Gipuzkoako Foru Aldundiaren aseguratu dela, aseguru-hartzailearen identifikazio osoa, aseguratzailerak gehienez babesten duen zenbatekoa eta kontratuaren indarraldia.

Horrez gain, ondoko baldintzak ere bete beharko dira:

- Aseguratzailerak aktiboan dagoen entitate bat behar du izan, Aseguruaren eta Pentsio Fondoen Zuzendaritza Nagusiak kauzio aseguruaren arloan aritzeko behar bezala baimendua.

- Kontratuaren klausuletan ezin izango da ezarri aseguruaren aurka aseguratzaileraren eta aseguru-hartzailearen arteko harremanetik eratorritako inolako salbuespenik, ezta prima ez ordaintzea ere, betiere aseguru kontratuei buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legeak 8. artikuluan ezarritakoa eragotzi gabe. Klausuletan jasota utzi beharko da, baita ere, aseguratzailerak aseguratuari lehen errekerimenduan kalte-ordaina emateko konpromisoa hartzen duela eta bermea premiamenduzko prozedura administratibotik exekutatzeari ongi irizten diola.

- Kontratuak indarrean jarraituko du Administrazioak kontratua deuseztatzeko baimena ematen duen arte. Epe hori 10 urtetik gorakoa bada, aseguru-hartzaileak eta aseguratzailerak aseguru kontratuan jaso beharko dute esandako epea amaitu baino lehen aseguru kontratuaren luzapen automatikoa hitzartuko dutela eta luzapen hori urtebetekoa izango dela hurrenez hurrengo epeetan, beti ere bermearen indarraldia mantentzeko behar den denboran.

Kontratuaren balioa eta indarraldia onartzeko, Fiskaliterako eta Finantzarako Departamentuan aholkularitza juridikoko funtzioak betetzen dituen organoari eskatu ahal izango zaio aseguratzaileraren izenean jarduten duten pertsonaren ahalordeak askiesteko.

4. Etendura eskatzen bada aurreko apartatuan aipatutakoak ez bezalako bermeak aurkeztuta, eteteko eskaera aurkeztearekin batera frogatu beharko da ezinezkoa

gertatu dela etendura automatikorako aurreikusita dauden bermeak aurkeztea. Eskaintzen diren bermeen izaera eta ezaugarriak ere zehaztu beharko dira, baita bermatuko diren ondasun edo eskubideak ere, barruan sartuta horien identifikazioa, titularitatea, kargak, zergak, errentamenduak edo beren balioan eragiten duten nahiz etendura eskatzen den unean indarrean dauden bestelako zirkunstantziak. Era berean, ondasunen balorazioa aurkeztu beharko da, behar besteko titulazioa duen perituak egina. Ondasun mota jakin baten balorazioan espezializatutako enpresa edo profesionalen erregistro bat dagoenean, balorazioa, ahal dela, erregistro horretan izena emanda dagoen enpresak edo profesionalak egin beharko du.

Etendura automatikorako bermeak jartzea ezinezkoa izan dela frogatzeko, besteak beste honako agiriak aurkeztuko dira:

- Etendura eskatu aurreko hilabetean bi kreditu entitateek abala ezin lortzeari buruz egindako ziurtagiria.

- Diruzaintzako liburu nagusiaren kopia, gordailua esku-dirutan eratzeko behar besteko saldorik ez dagoela adierazteko, eskatzaileak kontabilitatea eramatera behartuta dagoenean.

5. Eskaeran argudiatzen bada egintza exekutatzek kalte konpongaitzak edo konponezinak ekar ditzakeela, eteteko eskaerarekin batera kalte horiek gertatzeari buruzko frogagiriak aurkeztu beharko dira. Horrelakoetan, etendura bermeak zati batean aurkeztetik salbuetsita eskatzen bada, aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera eskaintzen direnak zehaztuko dira.

6. Bermerik gabeko etendura eskatzen bada inpugnatutako egintzak akats aritmetiko, material edo gertatzezkoa izan duelako, eskaerarekin batera akats hori dagoela frogatu beharko da.

7. Aurreko apartatuetan aipatutako agiriak ez badira aurkezten eteteko eskaerarekin batera, eskaera hori besterik gabe artxibatuko da.

8. Interesatuak egoki irizten dituzten bestelako agiriak ere aurkeztu ditzakete etendura emateko beharkizunak betetzen direla frogatzeko.

7. artikulua. Etenduraren bermeak.

1. Etendura lortze aldera aurkezten diren bermeak onartuak izateko, bi baldintza bete behar dituzte:

a)⁷ Nahikotasun ekonomikoaren beharkizuna. Aurkezten diren bermeei estali behar dute inpugnatutako egintzari dagokion obligazioaren zenbatekoa, etenaldiak sorrarazten dituen berandutze interesak, eta, bermea exekutatu gero, zilegi izan litezkeen errekaruak, baita erregelamendu honetan edo bestelako xedapenetan jasotakoaren arabera interesdunari eska dakioken beste edozein diru kopuru ere.

Aurkeztutako bermea diru-gordailu bat edo balore publikoak direnean, berandutze interesak hiru hilabetekoak izango dira, baldin eta bermeak berraztertze

⁷ Letra hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

errekurtsoa bakarrik estaltzen badu. Bide ekonomiko-administratibora zabaltzen baditu bere ondorioak, urtebeteko epea ere estali beharko du.

b) Nahikotasun juridikoari buruzko baldintza. Bermeek aurreko artikuluan aurreikusitako beharkizunak bete behar dituzte, bermatzen duten zorra eta bermatutako zenbatekoak argi eta garbi identifikatu, bermearen izaera mugagabea adierazi eta zein eremu estaltzen duen zehaztu.

2. Berraztertze errekurtsu batean exekuzioa eteteko aurkeztutako bermeak ez badu espresuki adierazten zein eremu estaltzen duen, ulertuko da etenduraren ondorioak errekurtsu horretaraino bakarrik iristen direla.

3. Errekurtsu edo erreklamazio bat zati batean onetsi eta, horren ondorioz, beste likidazio bat egin beharra suertatzen denean, jarritako bermea honako hauek estaltzeko erabiliko da: likidazio horretatik ateratako kuota edo zenbateko berria eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 26.5 artikuluan jasotakoaren arabera kalkulaturako berandutza interesak.

8. artikulua. Etendura onartu edo ukatzearen ondorioak.

1. Onartzen den etendurak eskaera egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Interesatuari jakinaraziko zaio etendura onartu dela.

2. Bermea formalizatzeko agirian akatsak zuzendu behar direnean erregelamendu honen 2.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, akatsak zuzentzeko errekerimenduari kasu eginez gero eskaera balioduntzat hartuko da aurkeztu den momentutik.

Errekerimenduari ez bazaio jaramonik egiten, eskaera ez dela aurkeztu joko da eta beste ezein tramiterik egin gabe artxibatuko da.

Interesatuak akatsak zuzentzeko errekerimenduari epe barruan erantzun badio, baina antzemandako akatsak ez direla zuzendu irizten bada, etendura ukatu egingo da.

3.⁸ Aurkeztutako etendura eskaera ukatu dela jakinarazten bada zorra borondatez ordaintzeko epean dagoenean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 61.2 artikuluan aurreikusitako epea hasiko da ordainketa hori egiteko, foru arau horren 165.2 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe. Era berean, egoki diren berandutze interesak likidatu beharko dira.

Etendura eskatzen den unean zorra epe exekutiboan badago, ezezkoaren jakinarazpenak berekin ekarriko du premiamenduzko prozedurak lehendik zegoen fasetik aurrera jarraitzea edo, kasua bada, prozedura hori abiatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 171.1 artikuluan ezarritako eran.

4. Ebazpena hiru hilabeteko epean jakinarazi behar zaio interesatuari. Epe hori ebazpen espresurik eman gabe igarotzen bada, eskaera ezetsi dela ulertu ahal izango da.

⁸ Apartatu hau abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 1. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu. Aldaketa foru dekretu Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu (2023/12/18ko GAO) eta biharamunean jartzen da indarrean.

5. Etendura ukatzen duten ebazpenen aurka erreklamazio ekonomiko-administratiboa jar daiteke, dela Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan dela administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioan, eteteko eskaerak zein organok ebazten dituen.

2. sekzioa. Etendura automatikoa bermeak jarrita

9. artikulua. Etendura automatikoa.

1. Etendura automatikoa Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 222.2 artikuluan aipatzen dituen bermeak aurkeztuta eskatzeak inpugnatutako egintzaren exekuzioa etengo du aurreko apartatuetan adierazitakoaren arabera.

2. Egintza inpugnatzeko prozedura zein organok ebatzi behar duen, horrek izango du eskumena eskatutako etendura tramitatu eta ebazteko.

3. Exekuzioa eteteko eskaerari bermea eratzeko formalizatutako jatorrizko agiria erantsiko zaio beti, erregelamendu honen 6.3 artikuluan adierazitakoari jarraituta.

Eskaerarekin batera behar den bermerik aurkezten ez bada, eskaerak ez du ondorio etenarazlerik izango eta aurkeztu gabekotzat joko da ondorio guztietarako. Horrelakoetan, eskaera besterik gabe artxibatuko da.

4. Exekuzioa eteteko eskaerarekin batera berme nahikoa aurkezten denean, ulertuko da etendura eskaera egin den egunetik onartuta dagoela. Etendurari buruzko erabakia interesatuari jakinaraziko zaio.

5. Bermea formalizatzeko agirian akatsak zuzendu behar badira, erregelamendu honen 2.2 artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu da. Akatsak zuzentzeak exekuzioa automatikoki etetea ekarriko du artikulua honetan ezarritako eran.

Akatsak zuzentzeko errekerimenduak ez badu erantzunik jasotzen, eskaera besterik gabe artxibatuko da.

Interesatuak akatsak zuzentzeko errekerimenduari epe barruan erantzun badio, baina antzemandako akatsak ez direla zuzendu irizten bada, etendura ukatu egingo da.

6. Etendura ukatzen duen ebazpenaren aurka erreklamazio ekonomiko-administratiboa edo administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, eskaera zein organok ebazten duen.

7. Etendura eskatzeko hasitako prozedurari bakarrik eragingo dio etenak. Dena den, berraztertze errekurtsu bat jartzean aurkeztutako bermeak bide ekonomiko-administratibora zabal dezake gero bere eraginkortasuna, baldin eta erreklamatzailak hala eskatzen badu eta hasieran aurkeztutako bermearen iraupenak eta eraginkortasunak aukera hori aurreikusten badute.

Orobat, administrazioarekiko auzi errekurtsu bat jartzen denean, bide administratiboan izandako etenari eutsiko zaio baldin eta errekurtsu hori jartzeko epean interesatuak hura jarri duela jakinarazten badu eta bide administratiboan aurkeztutako bermeak oraindik indarra eta eraginkortasuna badauzka edo exekuzioa eteteko bide horretan aintzat hartutako arrazoia mantentzen bada. Jakinarazpen horretan frogatu beharko da dagokion organo jurisdikzionalari

etenduraren eskaera aurkeztu zaiola. Eskatutako etenari buruz organo juridikzionalak behar den erabakia eman arte iraungo du etenak.

Zerga obligazio lotuen kasuan, gertatzen bada errekurritu edo erreklamaturako zerga zorrak, aldi berean, zergapekoaren aldeko itzulketa bat aitortzea dakarrela, etendura lortzeko aurkeztutako bermeek errekurtsio edo erreklamazioa erabat edo partzialki onesteagatik itzuli beharreko diru kopuruak ere bermaturako behar dituzte.⁹

3. sekzioa. Etendura bestelako bermeak aurkeztuta

10. artikulua. Etendura bestelako bermeak aurkeztuta.

1.¹⁰ Etendura eskatzen bada Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 222.3 artikuluan aipatzen dituen bestelako bermeak aurkeztuta, errekurritutako egintzarekin lotuta dagoen bilketa prozedura etenda geratuko da, kautelarki, baldin eta eskaera aurkeztu den unean zorra borondatezko epean badago, foru arau horren 165.2 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe.

Zorra epe exekutiboan badago, eteteko eskaerak ez du galaraziko Administrazioak bere jarduketekin jarraitzea, nahiz eta horrek ez duen kenduko eskaeraren dataren ondoren egindakoak deuseztatzea, etendura azkenean onartzen bada.

2. Aurreko apartatuan adierazitako eragina izan dezan, etenduraren eskaerak eskainitako bermea edo bermeak zehaztu beharko ditu, bai eta erregelamendu honen 6.4 artikuluan aipatutako dokumentazioa erantsi ere.

3. Behin eskaera aztertuta zuzentzeko moduko akatsak antzematen badira, interesatuari horiek zuzentzeko eskatuko zaio erregelamendu honek 2.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz. Akatsak epe barruan zuzenduz gero, eskaera tramitatzen jarraituko da. Hala ez bada egiten, besterik gabe artxibatuko da eskaera. Akatsak zuzentzeko eskaerari interesatuak epe barruan erantzuten badio, baina ikusitako akatsak ez direla zuzendu irizten bada, etendura ukatu egingo da.

4. Etendura eskatzeko irekitako inpugnazio prozedura ebatzi behar duen organoak izango du eskumena eskaera tramitatu eta ebazteko.

5. Zergabilketako Zuzendariordetza Nagusiari txostena eskatuko zaio eskainitako bermeei buruz eta horien nahikotasun ekonomikoari buruz, eta txosten horrek aldekoa izan beharko du. Txosten horretan bermearekin zer ikusia duen beste edozein gai ere jasoko da eta bereziki, inpugnatutako egintzaren inguruan, alegia, exekuzioa eteteko eskatu den egintzaren inguruan, badaezpadako neurririk hartu den.

6. Tramitazioaren edozein unetan informazio edo dokumentazio gehigarria eskatu ahal izango zaio eskatzaileari.

⁹ Paragrafo hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko zazpi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

¹⁰ Apartatu hau abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 1. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu. Aldaketa foru dekretu Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu (2023/12/18ko GAO) eta biharamunean jartzen da indarrean.

7. Etenduraren aldeko ebazpenak zein berme eratu behar den eta eraketa horren gainerako zirkunstantziak zein diren zehaztuko du.

8. Etendura ukatzen duen ebazpenaren aurka erreklamazio ekonomiko-administratiboa edo administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, eskaera zein organok ebazten duen.

9. Organo eskudunak irizten badu etendurari buruzko ebazpena aldatu behar dela Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 222.4 artikuluan jasotakoaren indarrez, hala jakinaraziko dio interesatuari, bere eskubidearen alde komenigarritzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan. Horretarako, 15 eguneko epea emango zaio, epe hori zabaldu dela jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita.

Ebazpena aldatzeari buruzko tramite horren inguruan emandako ebazpenaren aurka erreklamazio ekonomiko-administratiboa edo administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, ebazpena zein organok eman duen.

10. Etendura eskatzeko hasitako prozedurari bakarrik eragingo dio etenak. Dena den, berraztertze errekurtsu bat jartzean aurkeztutako bermeak bide ekonomiko-administratibora zabal dezake gero bere eraginkortasuna, baldin eta erreklamatzailerak hala eskatzen badu eta hasieran aurkeztutako bermearen iraupenak eta eraginkortasunak aukera hori aurreikusten badute.

Orobat, administrazioarekiko auzi errekurtsu bat jartzen denean, bide administratiboan izandako etenari eutsiko zaio baldin eta errekurtsu hori jartzeko epean interesatuak hura jarri duela jakinarazten badu eta bide administratiboan aurkeztutako bermeak oraindik indarra eta eraginkortasuna badauzka edo exekuzioa eteteko bide horretan aintzat hartutako arrazoia mantentzen bada. Jakinarazpen horretan frogatu beharko da dagokion organo jurisdikzionalari etenduraren eskaera aurkeztu zaiola. Eskatutako etenari buruz organo jurisdikzionalak behar den erabakia eman arte iraungo du etendurak.

11. artikulua. Bermeak eratzea.

1. Eskaintzen den bermea bi hilabeteko epean eratu beharko da, etenduraren aldeko erabakia jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita, non eta kasuan kasuko zirkunstantziengatik ez den bestelako eperik espresuki ezartzen. Bermerik formalizatu ezean, ez da etendurarik izango.

2. Bere izaera juridikoa aintzat hartuta formalizatuko da bermea, arau zibil, merkantil edo administratiboek horren inguruan diotenari jarraituta, dagokionaren arabera.

3. Onartutako bermea formalizatzeak ezinbestean badakar, bere izaeragatik edo bestelako zirkunstantziengatik, zenbait tramite etendurari buruzko eskaera ebatzi behar ez duten organoek egitea, organo horiek diotenari jarraituko zaio.

4. Bi hilabeteko epea, edo ezartzen den bestelakoa, igarotzen bada bermerik formalizatu gabe, kautelazko etena kenduko da eta honako hauek izango dira ondorioak:

a) Exekuzioa eteteko eskaera borondatez ordaintzeko epean aurkeztu bada, bermea formalizatzeko emandako epea amaitu ondorengo egunean epealdi exekutiboa hasiko da, eta orduan premiamenduzko prozedura hasi beharko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau

Orokorrak, 171.1 artikuluan jasotako eran, zorraren zenbateko nagusia, epealdi exekutiboko errekaruak eta bidezko diren berandutza interesak exijitzeko.

Borondatez ordaintzeko epea amaitu ondorengo egunetik bermea formalizatzeko epearen azken egunera arte konputatuko dira interes horiek, betiere Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 26. artikuluan xedatutakoari jarraituta geroago sor litezkeen interesak eragotzi gabe.

b) Etendura eskatzeko unean zorra epealdi exekutiboan badago, premiamenduzko prozedurarekin jarraituko da utzita zegoen fasetik aurrera edo, bestela, prozedura hori abiatuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 171.1 artikuluan ezarritako eran.

5. Bermeak formalizatzeko jatorrizko agiriak ez badira aurkezten ezarrita dagoen epean, formalizatzeko obligazioa ez dela bete ulertuko da, eta horrek aurreko apartatuan adierazitako ondorioak izango ditu.

4. sekzioa. Bermeak aurkeztetik salbuetsitako etendura

12. artikulua. Bermeak aurkeztetik salbuetsitako etendura.

1. Inpugnatzeko egintza ezagutzen duen organoak tramitatu eta ebatziko ditu bermeak erabat edo zati batean aurkeztetik salbuetsitako etenduren eskaerak. Bi izango dira horrelako eskaerak egiteko arrazoiak:

a) Exekuzioak kalte konpongaitzak edo konponezinak sortu ahal izatea, hala zerga zorra edo zenbateko likidua dagoen kasuetan, nola horrelako xederik ez duten egintzen kasuetan.

b) Akats aritmetiko, material edo gertatzezkoa izatea.

2. Zorra borondatezko epealdian badago eta bermerik gabeko etendura aurreko apartatuan adierazitako kasuetan eskatzen bada erregelamendu honek 6. artikuluan 5 edo 6 apartatuetan aipatzen duen dokumentazioa aurkeztuta, exekuzioa eten egingo da, badaezpadako neurri gisa, harik eta organo eskudunak etenduraren eskaera tramitera onartu ala ez erabaki arte.

Zorra epealdi exekutiboan badago, etenduraren eskaerak ez du eragotziko Administrazioak bere jarduketekin jarraitzea; nolahi ere, gerta liteke eskaeraren ondoren egindakoak deuseztatu behar izatea, azkenean eskaera tramitera onartzen bada.

3. Behin eskaera aztertuta zuzentzeko moduko akatsak antzematen badira, interesatuari horiek zuzentzeko eskatuko zaio erregelamendu honek 2.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz. Akatsak epe barruan zuzenduz gero, eskaera tramitatzen jarraituko da. Hala ez bada egiten, besterik gabe artxibatuko da eskaera. Zuzenketa egiteko errekerimenduari interesatuak epe barruan erantzun arren, irizten bada ikusi diren akatsak konpondu gabe utzi dituela, etenduraren eskaera ez da tramitera onartuko eta hurrengo apartatuan adierazitako ondorioak sortuko dira.

4. Akatsak, halakorik bada, zuzenduak dituen eskaera behin aztertu ondoren, ebazteko organo eskudunak eskaera tramitera onartu ala ez erabakiko du. Ez du onartuko baldin eta espedientean jasotako agirietatik ezin bada ondorioztatu kalte

konpongaitz edo konponezinen zantzurik dagoenik edo akats aritmetiko, material edo gertatzezkorik izan denik.

Eskaera tramitera onartzeak etendura ekarriko du eskaera aurkezten denetik aurrera, eta onarpen hori interesatuari jakinaraziko zaio.

Eskaera ez bada tramitera onartzen, etenduraren eskaera aurkeztu gabekotzat joko da ondorio guztietarako. Ez onartzeko erabakia interesatuari jakinaraziko zaio.

Eskaera tramitera ez onartzeko erabakiaren aurka erreklamazio ekonomiko-administratiboa edo administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, erabakia zein organok hartu duen.

13. artikulua. Bermeak aurkeztetik salbuetsitako etendura tramitatu eta ebaztea.

1. Etenduraren eskaera tramitera onartu eta gero, organo eskudunak txostena eskatuko dio, hala badagokio, Zergabilketako Zuzendariorde Nagusiari. Txosten horretan Zuzendariorde horrek adierazi beharko du eskainitako bermeak ekonomikoki nahikoak ote diren salbuespena partziala denean; era berean, berme gisa aurkez litekeen bestelako ondasunik ba ote dagoen adieraziko du, eta bereziki, etendura bermeak aurkeztetik erabat salbuetsita eskatzen denean.

Txosten horretan espresuki adieraziko da eskainitako ondasunak nahikoak diren, berme gisa eskain litekeen beste ondasunik ba ote dagoen, bai salbuespena erabatekoa denean bai partziala denean, eta bereziki, inpugnatutako egintzaren inguruan, alegia, exekuzioa eteteko eskatu den egintzaren inguruan, badaezpadako neurririk hartu den.

2. Txostena eta espedientean jasota dauden gainerako datuak aztertu ondoren, organo eskudunak ebazpena eman beharko du etendura onartu edo ukatzeko.

Etendura salbuespen partzialarekin onartzen denean, erabakian zehaztuko da zein berme eratu behar diren eta eraketaren gainerako zirkunstantziak zein diren.

Erabaki hori interesatuari jakinaraziko zaio.

3. Etendura berme partzialarekin onartzen denean, berme hori organo eskudunaren aurrean eratu beharko da. Zilegi ikusiz gero, organo horrek onartu egingo du, eta erregelamendu honen 11. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

4. Organo eskudunak irizten badu etendurari buruzko ebazpena aldatu behar dela Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 222.4 artikuluan jasotakoaren indarrez, hala jakinaraziko dio interesatuari, bere eskubidearen alde komenigarritzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan. Horretarako, hamabost eguneko epea emango zaio, epe hori zabaldu dela jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita.

Ebazpena aldatzeari buruzko tramite horren inguruan emandako ebazpenaren aurka erreklamazio ekonomiko-administratiboa edo administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, ebazpena zein organok eman duen.

5. Etendura ukatzen duen ebazpenaren aurka erreklamazio ekonomiko-administratiboa edo administrazioarekiko auzi errekurtoa jar daiteke, ezezko erabakia zein organok eman duen.

II. TITULUA. BERRIKUSPEN PROZEDURA BEREZIAK

1. kapitulua. Zuzenbidean erabat deusezak diren egintzak berrikusteko prozedura.

14. artikulua. Hasiera.

1. Zuzenbidean erabat deusezak diren egintzak berrikusteko prozedura ofizioz edo interesatuaren eskariz hasi daiteke, hau da, egintza eman zuen organoak edo goragoko batek erabakita edo interesatuak hala eskaturik. Azken kasu horretan, berrikusteko eskatzen den egintza eman zuen organoari zuzendu behar zaio idatzia. Ofiziozko hasiera interesatuari jakinaraziko zaio.

2. Prozedura tramitatzeke eskumena duen organoak ahalmena izango du berrikuspen eskaerak tramitera ez onartzea erabakitzeke, zioak azalduta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 224.3 artikuluan aipatutako kasuetan.

15. artikulua. Tramitatzea.

1. Berrikusi beharreko egintza eman zuen organoa izango da prozedura tramitatzeke organo eskuduna.

2. Prozedura tramitatzeke eskumena duen organoak beharrezkotzat jotzen duen edozein datu edo aurrekari eskatu ahal izango du ebazpen proposamena prestatzeke.

3. Interesatuari eta dena delako egintzaren bidez eskubideak aitortu edo interesak ukitu zaizkien gainerako pertsoneri hamabost egunez jarriko zaie ikusgai administrazio espedientea, egoki jotzen dituzten alegazio, agiri eta frogak aurkeztu ditzaten. Espedientea ikusteko epearen hasiera jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatuko da epe hori.

4. Entzute tramitea amaiturik, prozedura tramitatzeke organo eskudunak ebazpen proposamena helaraziko dio ebazteke eskumena duen organoari.

16. artikulua. Prozedura ebaztea.

1. Ebazpen proposamena jaso ondoren, irizpena eskatuko zaio Gipuzkoako Lege Aholkularitzako Batzordeari.

Deusezetasuna aitortzeke, ezinbestekoa izango da esandako irizpena aldekoa izatea.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenen esparruan, prozedura honen ebazpena Fiskalitateko eta Finantzarako Departamentuko foru diputatuari dagokio, salbu deuseza deklaratu den egintza Diputatuen Kontseiluak eman duenean, kasu horretan organo horrek ebazteke baitu.

II. kapitulua. Egintza eta ebazpen deuseztagarriak kaltegarritzat jotzeko prozedura

17. artikulua. Hasiera.

Interesatuen aldeko egintzak eta ebazpenak ordenamendu juridikoa zernahi eran urratzeagatik kaltegarritzat jotzeko prozedura bi modutara hasi daiteke: ofizioz, Ogasuneko zuzendari nagusiak bere ekimenez hala erabakita, edo egintza eman zuen organoak edo honen gainetiko organoak proposatuta. Hasiera interesatuari jakinaraziko zaio.

18. artikulua. Tramitatzea.

1. Berrikusi beharreko egintza eman zuen organoak tramitatuko du prozedura. Organo horrek, gainera, ebazpena emateko kontuan hartu behar diren aurrekariei buruzko txostena ere egingo du.

Era berean, ebazpen proposamena egiteko beharrezkotzat jotzen den beste edozein datu, aurrekari edo txosten eskatu ahal izango da.

2. Interesatuei hamabost egunez jarriko zaie ikusgai administrazio espedientea, egoki deritzeten alegazio, agiri eta frogak aurkez ditzaten. Espedientea ikusteko epearen hasiera jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatuko da epe hori.

3. Entzute tramitea amaiturik, prozedura tramitatzeko organo eskudunak, egoki baderitzo, txostena eskatuko dio, ebazpen proposamena egin aurretik, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuan lege aholkularitzako funtzioak betetzen dituen organoari, egintza kaltegarritzat jotzea bidezkoa den ala ez adieraz dezan.

4. Ebazpen proposamena egindakoa, ebazteko eskumena duen organoari proposamena eta espediente osoaren kopia erkatua helaraziko zaizkio.

19. artikulua. Prozedura ebaztea.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparruan, Diputatuen Kontseiluak izango du ebazteko eskumena.

2. Ebazpena kaltegarritzat jotzeko, bai ebazpena eta bai espediente administratiboaren kopia erkatua Araubide Juridikoko Zuzendaritza Nagusira bidaliko dira administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioan inpugna dezan.

III. kapitulua. Egintzak ezeztatzeko prozedura

20. artikulua. Hasiera

1. Ezeztatzeko prozedura ofizioz hasiko da beti, nahiz eta horrek ez duen eragotziko interesatuek Administrazioaren aurrean prozeduraren hasiera sustatzea egintza eman zuen organoari idatziz eskatuta. Kasu horretan, Administrazioak ez du beste obligaziorik izango idatzi hori jaso izana adieraztea baino. Hasiera interesatuari jakinaraziko zaio.

2. Zergak aplikatzeko eta zigorrak ezartzeko egintzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 226. artikuluan xedatutakoaren arabera ezeztatu ahal izango dira, baita bide

ekonomiko-administratiboan inpugnatuak izan arren, harik eta Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak ebazpena eman edo amaitzeko erabakia hartu arte.

3. Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren ebazpenak eta amaitzeko erabakiak, eta, orobat, zergak aplikatzearekin nahiz zigorrak ezartzearekin lotutako erabaki eta ebazpen horien xede diren egintzak, ezeztatzeko izango dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 219.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

21. artikulua. Tramitatzea.

1. Egintza eman zuen organoak ebatziko du prozedura.
2. Beharrezkotzat jotzen dituen datu, aurrekari edo txostenak eskatu ahal izango ditu organo horrek.
3. Bidezkoa denean, interesatuei hamabost egunez entzuerara emango zaie, epe horren hasiera jakinarazi eta biharamunetik hasita, egokitzen jotzen dituzten alegazio, agiri eta frogak aurkeztu ahal izan ditzaten.
- 4.¹¹ Entzute-tramitea behin amaiturik, prozedura tramitatzeko eskumena duen organoak ebazpen proposamena prestatuko du.

Proposamena prestatu ondoren, tramitatzeko organo eskudunak errebokazioaren bidez kotatzen buruzko txostena eskatu ahal izango dio Ogasun eta Finantza Departamentuan lege aholkularitza arduratzen den organoari.

22. artikulua. Prozedura ebaztea.

Egintza eman zuen organoari dagokio prozedura ebaztea.

IV. kapitulua. Akatsak zuzentzeko prozedura

23. artikulua. Akatsak zuzentzeko prozedura

1. Prozedura ofizioz hasi bada, prozedurari hasiera emateko erabakiarekin batera akatsak zuzentzeko proposamena ere jakinaraziko zaio interesatuari, proposamena jakinarazi eta biharamunetik hasita hamabost eguneko epean alegazioak egin ahal izan ditzan.

Zuzenketa interesatuen mesederako egiten bada, prozeduraren ebazpena zuzenean jakinarazi ahal izango da.

2. Prozedura interesatuak eskatuta hasten denean, Administrazioak zuzenean eman ahal izango du bidezko deritzon ebazpena, baldin eta interesatuak aurkeztutako gertaera, alegazio edo frogak baino ez badira ageri prozeduran eta horiek baino ez badira kontuan hartzen ebazpena emateko orduan. Hala ez bada, ebazpen proposamena interesatuari jakinarazi beharko zaio, bere eskubidearen alde egokitzen jotzen duena alegatu dezan hamabost eguneko epean, proposamena jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita.

¹¹ Apartatu hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko zortzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

3. Egintza administratiboen exekuzioa bermerik aurkeztu gabe eten ahal izango da, egintza ematean akats aritmetiko, material edo gertatzezkoa egon daitekeela ikusten denean.

V. kapitulua. Okerreko sarreraren itzulketak

1. sekzioa. Xedapen orokorrak

24. artikulua. Itzulketak prozedura eskatzeko zilegiztatuak eta itzulketarako eskubidearen onuradunak.

1. Honako pertsona edo entitateek izango dute okerreko sarreraren itzulketak eskatzeko eskubidea:

a) Zergapekoek eta subjektu urratzaileek, euren zerga obligazioak betetzeagatik edo zigorrak ordaintzeagatik Foru Ogasunean okerreko sarrerak egin dituztenean. Batzuen eta besteen oinordekoek ere eskubide bera izango dute.

b) Aurreko a) paragrafoko pertsona edo entitateez gainera, jasanarazitako atxikipena edo konturako sarrera jasan duen pertsonak edo entitateak, baldin eta jasandako atxikipena edo jasanarazitako sarrera okerrekoak izan direla irizten badiote. Aldiz, okertzat hartu den konturako sarrera inori jasanarazi ez bazaio, a) paragrafoan aipatutako pertsona edo entitateek izango dute itzulketak eskatzeko eskubidea.

c) Okerreko sarrera legez jasanarazi beharreko zergei badagokie, aurreko a) paragrafoan aipatutako pertsona edo entitateez gainera, jasanarazpena jasan duen pertsonak edo entitateak ere izango du itzulketak eskatzeko eskubidea.

2. Honako pertsona edo entitateek izango dute okertzat jotako sarreraren itzulketarako eskubidea:

a) Okerreko sarrera egin duten zergapekoek eta subjektu urratzaileek, apartatu honetako b) eta c) paragrafoetan jasotako kasuetan izan ezik, eta batzuen zein besteen oinordekoek.

b) Atxikipena edo konturako sarrera jasan duen pertsonak edo entitateak, okerreko sarrera jasandako atxikipenagatik edo konturako sarrera jasanaraziengatik gertatu denean. Okertzat jotako atxikipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa autolikidazio batean kendu bada edo Administrazioak likidazio batean edo itzulketak batean kontuan hartu badu, ez da inolako itzulketarik izango.

Aurreko a) paragrafoan aipatutako pertsonak edo entitateek, okertzat jotako sarrera jasanarazi ez denean. Konturako sarreraren zenbatekoa autolikidazio batean kendu bada edo Administrazioak likidazio batean edo itzulketak batean kontuan hartu badu, ez da inolako itzulketarik izango. Dena den, horrek ez du eragotziko errenta jaso duenak behar diren jarduketak egitea okerreko konturako sarrera egin zuen pertsona edo entitateari ordaina emateko.

c) Jasanarazpena jasan duen pertsonak edo entitateak, okerreko sarrera beste pertsona edo entitate batzuei legez jasanarazi behar zaizkien zergei dagokienean. Guztiarekin ere, itzulketak zilegia izateko honako baldintzak bete beharko dira:

1. Zergaren zenbatekoa faktura edo ordezkoko agiri bidez jasanarazi izana, zergaren araudiak hala ezartzen badu.

2. Bidegabeki jasanarazitako kuotak sartuta egotea. Eragiketen hartzaileak jasanarazpena jasan badu eta jasan edo ordaindutako kuotengatik kenkarirako eskubidea badu, ulertuko da bidegabeki jasanarazitako kuotak sartuak izan direla baldin eta haiek jasanarazi zituenak behar bezala jaso baditu zergaren autolikidazioan, autolikidazio horren emaitza edozein dela ere.

3. Bidegabeki jasanaraziak izateagatik itzultzeko eskatzen diren kuotak zerga Administrazioak itzuli izana haiek jasan zituenari edo hirugarren bati.

4. Jasanarazpena jasan duen zergapekoak ez edukitzea jasandako kuoten kenkarirako eskubiderik. Kenkarirako eskubidea partziala denean, kengarria izan ez den zenbatekoa bakarrik itzuliko da.

3. Aurreko 1 apartatuko b) eta c) paragrafoetan jasotako kasuetan, atxikipena edo konturako sarrera nahiz zergaren jasanarazpena bidegabeki jasan duen zergapekoak okerreko sarreraren itzulketa eskatu ahal izango du sarrera hori egiteko aurkeztutako autolikidazioa zuzentzeko eskatuz.

4. Okerreko sarreraren itzulketa atxikitzailak edo kuotak jasanarazi zituen zergapekoak eskatu badu edo, bestela, itzulketa hori 25. artikuluan aipatutako prozeduretako batean erabaki bada, atxikipena edo jasanarazpena bidegabeki jasan duen pertsona edo entitateari zuzenean egingo zaio itzulketa.

5. Itzulketarako eskubidea oinordekoei dagokienean, berariazko araudiari begiratuko zaio itzulketa eskatu dezaketena, itzulketaren onuradunak eta bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko.

25. artikulua. Okerreko sarrerak itzultzeko kasuak.

1. Okerreko sarrerak itzultzeko eskubidea honako kasuetan aitortu ahal izango da:

a) Kapitulu honetako 2. sekzioan arautzen den eskubidea aitortzeko prozeduran, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 228.1 artikuluan aurreikusitako kasuak gertatzen badira.

b) Berrikuspen prozedura berezi batean.

c) Errekurtso administratiboan edo erreklamazio ekonomiko-administratiboan ebazpenen indarrez, zein ebazpen judizial irmoen indarrez.

d) Zergak aplikatzeko prozeduretan.

e) Autolikidazioa zuzentzeko prozedura batean, zergapekoak edo beste zergapeko batzuek hala eskatzen badute aurreko artikuluko 3 apartatuan jasotako kasuan.

f) Zergen araudian ezarrita dagoen beste edozein prozeduraren bidez.

2. Okerreko sarrerak efektu tinbratuen bidez itzultzeko prozedura Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuaren foru agindu bidez arautuko da.

26. artikulua. Okerreko sarreraren itzulketarako eskubidearen edukia.

Okerreko sarrera bat egiteagatik itzuli beharreko kopurua ondoko zenbatekoen batura izango da:

- a) Oker egindako sarreraren zenbatekoa.
- b) Ordaindutako kostuak, okerreko sarrera premiamenduzko prozedura batean egin bada.
- c) Oker egindako ordainketek exijigarri den denboran sortu duten berandutza interesa, zergapekoak eskatu behar izan gabe, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 32.2 artikuluan jasotzen duen bezala.

2. sekzioa. Okerreko sarreraren itzulketarako eskubidea aitortzeko prozedura, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 228.1 artikuluan jasotako kasuetan

27. artikulua. Hasiera.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 228.1 artikuluan aurreikusitako kasuetan, okerreko sarreraren itzulketarako eskubidea aitortzeko prozedura ofizioz zein interesatuak eskatuta hasi ahal izango da.

2. Prozedura interesatuak eskatuta hasten denean, ebazteko eskumena duen organoari zuzenduko zaio eskaera. Erregelamendu honen 2. artikuluan aipatutakoak jasotzeaz gainera, kontu kodearen zenbakia barne, eskaerak honako datuok bildu beharko ditu:

a) Okerreko sarreraren justifikazioa. Itzulketarako eskubidea frogatzen duten agiriak eta egokitzen jotzen diren beste frogabide guztiak erantsiko zaizkio eskaerari. Ordainketaren frogagirien orde, egindako sarrera identifikatzeko datu zehatzak jarri ahal izango dira, besteak beste, sarrera noiz eta non egin den eta zenbatekoa izan den.

b) Konpentsatzeko eskaera bat, hala badagokio, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamenduak aurreikusten duen eran.

3. Prozedura ofizioz hasten denean, interesatuari prozedura hasteko erabakia jakinaraziko zaio.

Zerga Administrazioaren esku dauden datuak nahikoak badira ebazpen proposamena prestatzeko, proposamen hori jakinaraziz hasi ahal izango da prozedura.

28. artikulua. Tramitatzea.

1. Espedientea tramitatzean, zerga Administrazioako organo eskudunak egiaztatu egingo du itzulketarako eskubidea dakarten zirkunstantziak gertatu direla, sarrera egin egin dela eta horren ondoren ez dela itzulia izan. Eskubidearen titulartasuna eta itzulketaren zenbatekoa egiaztatuko ditu, baita ere, administrazioak.

2. Era berean, interesatuei edota hirugarrenei errekerimenduak egin ahal izango dizkie, oro har eman behar duten informazioa aurkez dezaten edo egiaztagiri egokien bidez berretsi dezaten.

3. Ebazpena eman baino lehen, zerga Administrazioak ebazpen proposamena jakinarazi beharko dio zergapekoari, eta honek hamabost eguneko epea izango du, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, egoki irizten dituen alegazio, agiri eta frogagiriak aurkezteko.

Zilegi izango da tramite hori alde batera uztea kontuan hartzen diren gertaerak edo alegazioak zergapekoak adierazitakoak baino ez direnean edo proposatutako itzulketaren zenbatekoa, berandutza interesak sartu gabe, eskatutakoaren berdina denean.

29. artikulua. Prozedura ebaztea.

1. Itzulketari buruz erabakitzeko eskumena duen organoak ebazpen arrazoitua eman beharko du, eta erabakia aldekoa bada, bertan itzulketarako eskubidea aitortu beharko du, eskubidearen titularra zehaztu eta itzulketaren zenbatekoa ezarri.

2. Interesatuak eskatuta hasten diren prozeduretan, interesatuak ulertu ahal izango du bere eskaera isiltasun administratiboz ezetsi dela sei hilabeteko epean ebazpen espresurik jakinarazi ez zaionean.

3. sekzioa. Okerreko sarreren itzulketa egitea

30. artikulua. Itzulketa egitea.

Itzulketarako eskubidea 25. artikuluan aurreikusitako edozein prozedura erabilita behin aitortuz gero, edo zerga zigor bat bakartu edo zerga zorraren barkamena foru arau baten bidez deklaraturik gero, berehala egingo da itzulketa.

III. TITULUA. BERRAZTERTZE ERREKURTSOA

I. kapitulua. Xedapen orokorrak

31. artikulua. Errekurtsoa eta erreklamazioa aldi berean aurkeztearen ondorioak.

Aurkeztekotan, berraztertze errekurtsoa erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri aurretik aurkeztu beharko da.

Interesatuak berraztertze errekurtsoa jartzen badu, ezin izango du erreklamazio ekonomiko-administratiborik aurkeztu harik eta errekurtsoa espresuki ebatzi arte edo bere ustez isiltasun administratiboz ezetsita dagoela jo arte.

Errekurritzeko epearen barruan egintza berberagatik berraztertze errekurtsoa eta erreklamazio ekonomiko-administratiboa jartzen direnean, lehendabizi aurkeztutakoa tramitatuko da eta bigarrena ezin onartuzkoa dela adieraziko da. Biak aldi berean aurkezten badira, berraztertze errekurtsoa tramitatuko da.

32. artikulua. Berraztertze errekurtsoarean ondorioak beste errekurtso batzuk jartzeari dagokionez.

Berraztertze errekurtsoa aurkezteak beste errekurtso batzuk aurkezteko epeak eteten ditu.

II. kapitulua. Prozedura

1. sekzioa. Hasiara

33. artikulua. Hasiara.

1. Errekurtsua jartzeko aurkezten den idatziak interesatuaren alegazioak jaso beharko ditu, eta bertan gertaerak zein zuzenbidezko oinarriak aipatuko dira. Idatzi horrekin batera, eskatzen dena oinarritzeko zilegi diren agiriak aurkeztuko dira.
2. Errekurtsua aurkeztean inpugnatutako egintza eteteko eskatzen denean, erregelamendu honek 4tik 13ra arteko artikuluetan xedatzen duenari jarraituko zaio.

34. artikulua. Espedientea ikusgai jartzea.

Interesatuak administrazio espedientea aztertu nahi badu bere alegazioak prestatzeko, ezinbestekoa izango du organo jardulearen aurrean agertzea inpugnatutako administrazio egintza jakinarazi eta biharamunetik aurrera, eta, betiere, errekurtsua jartzeko epea amaitu baino lehen.

Kasu horretan, organo eskudunak espedientearen edukia erakutsi beharko dio interesatuari, inpugnatutako egintzarekin zerikusia duena bakar-bakarrik. Edo, bestela, inpugnatutako egintzarekin lotuta dauden administrazio jarduketa zehatzei buruzko dokumentazioa ere jarri beharko dio ikusgai, interesatuak espresuki hala eskatzen badu.

2. sekzioa. Tramitazioa

35. artikulua. Prozedurako interesatuak.

1. Prozedura tramitatzen ari den bitartean ikusten bada legezko eskubide edo interesen titularren bat ez dela prozeduran agertu, errekurtsua jakinaraziko zaio alegazioak egin ditzan. Alegazioak egiteko epea hamabost egunekoa izango da jakinarazpena egin eta biharamunetik kontatzen hasita.
2. Organo eskudunak bidezkoz jotzen badu interesatuek aipatu ez dituzten kontuak aztertu eta ebaztea, prozeduran agertu direnei azalduko dizkie eta hamabost eguneko epea emango die alegazioak egiteko, epe hori zabaldu dela jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita.

3. sekzioa. Ebazpena

36. artikulua. Ebazpena jakinaraztea.

Ematen den ebazpen espresua errekurtsogileari jakinaraziko zaio, eta gainerako interesatuei ere bai, halakorik egonez gero.

IV. TITULUA. ERREKLAMAZIO EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK

I. kapitulua. Xedapen orokorrak

1. sekzioa. Antolaketa, eskumenak eta funtzionamendua

37. artikulua. Eskumena.

Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren egoitza Donostian izango da. Auzitegi honek auzialdi bakarrean ezagutuko ditu Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak edo bestelako foru arauak ezarritako gai eta kasuetan indarrean dagoen araudiari jarraikiz aurkezten diren erreklamazio ekonomiko-administratiboak.

38. artikulua. Osaera.

1. Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa lehendakariak eta sei bokalek osatuko dute, eta idazkari baten laguntza izango du.

2. Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren lehendakari kargua, zuzendari nagusi baten maila izango duena, izendapen librekoa izango da, eta libreki ere kenduko da. Diputatuen Kontseiluak izendatu edo kenduko du lehendakaria, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta kargua izendatu nahiz kentzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

3. Bokalak goi mailako tituludunak izango dira, eta honela izendatuko dira:

a) Horietatik lau, Gipuzkoako Foru Aldundian edo edozein herri administrazioan diharduten karrerako funtzionarioen artean, bertako lanpostuen zerrendan ezarritakoaren arabera.

b) Beste biak, EUDEL Udalen Elkarteak proposatutako artean. Bokal hauek ez dute, hala izendatuak izateagatik, inolako lan edo kontratu harremanik izango Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

4. Idazkaria, Zuzenbidean lizentziatua izan behar duena, Gipuzkoako Foru Aldundian edo edozein herri administrazioan diharduten karrerako funtzionarioen artean izendatuko da, bertako lanpostuen zerrendan ezarritakoaren arabera.

5. Bokalak eta idazkaria Diputatuen Kontseiluak izendatu eta kenduko ditu, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuko foru diputatuak hala proposaturik, eta karguak izendatu nahiz kentzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

6.¹² Lehendakari kargua hutsik dagoenean, titularra falta denean, gaixo dagoenean edo legezko beste edozein arrazoi gertatzen denean, hari esleitutako eskumen eta funtzioak foru diputatuak edo horrek izendatutako zuzendariak beteko ditu zuzenean.

Dena den, kide anitzeko organoaren bilerak egiteko, lehendakaria falta denean, antzinasunik handieneko bokalak ordeztuko du hura eta, bokalak antzinasun berekoak badira, orduan adin handiena duenak.

¹² Apartatu hau maiatzaren 20ko 34/2008 FORU DEKRETUAK, Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoa, aldatzen du amaierako lehen xedapenean (2008-05-30ko GAO). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egun berean sartzen da indarrean.

7.¹³ Kasu horietan ere, hau da, kargua hutsik dagoenean, titularra falta denean, gaixo dagoenean edo legezko beste edozein arrazoi gertatzen denean, bokalak ordezteko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak administrazio organoetako titularrentzat aurreikusten dituen ordezkapen arauak aplikatuko dira.

8. Idazkari kargua hutsik dagoenean, bera falta denean, gaixo dagoenean edo legezko beste edozein arrazoi gertatzen denean, idazkariaren aldi baterako ordezkapena antzinatasunik handieneko bokalaren esku geratuko da, eta antzinatasun bereko bokalak badaude, orduan adin gehien duenak edo lehendakariak puntualki izendatzen duenak ordeztuko du idazkaria. Bokal horrek Zuzenbidean Lizentziatua izan beharko du.

39. artikulua. Auzitegiko kideen eginkizunak.

1. Auzitegiko lehendakariak auzitegiaren ordezkaritza eta hari atxikitako langile guztien buruzagitza organiko eta funtzionala ditu bere gain. Era berean, lehendakariari auzitegiko egitura ezartzea dagokio, zenbat bokaltza behar dituen erabakiz eta horiek zuzenduko dituzten bokalak izendatuz. Horrez gain, erregelamendu honetan ematen zaizkion zereginak eta bere karguari propio dagozkionak ere betetzea dagokio.

2. Auzitegiko bokalek Bokaltza bakoitzari propio dagozkion lanak zuzendu behar dituzte, erreklamazioak ebazteko ponentziak proposatu, eta erregelamendu honek nahiz, bokal izateagatik, lehendakariak agintzen dizkien bestelako zereginak bete.

3. Idazkaria prozedura zuzendu eta bere tramitazioa bultzatzeaz arduratzen da, ordezkaritza funtzioak eta jakinarazpenei dagozkienak barne direla, eta bere karguagatik eman beharreko fede publikoari buruzko funtzioak betetzea eta akta liburuak eta Auzitegiak emandako ebazpenen artxiboa eramatea dagokio. Erregelamendu honetan ematen zaizkion gainerako zereginak ere baditu, bai eta lehendakariak, idazkari karguarekin bat, agintzen dion beste edozein funtzio ere.

40. artikulua. Funtzionamendua.

1. Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak bi modutara jardungo du: Batzar Osoan eta erreklamazio aretotan elkaturik, eta banakako eran.

2. Batzar Osoa lehendakariak, idazkariak eta bokal guztiek osatzen dute. Balio osoz eratua izateko, gutxienez kideen bi herenak egon behar dute bilduta, eta horien artean lehendakaria eta idazkaria edo hauek ordeztu behar dituztenak.

3. Batzar Osoak gai hauek aztertuko ditu:

a) Aretoetako batek aztertutako erreklamazioak, lehendakariak uste badu Batzar Osoari aurkeztu behar zaizkiola.

b) Bi erreklamazio aretoetarako interesgarriak izan litezkeen erreklamazioak, lehendakariak hala uste badu Auzitegiko edozein kidek proposaturik.

¹³ Apartatu hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko bederatzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzten da indarrean (2018/07/04ko GAO).

4. Bi erreklamazio areto izango dira:

a) Zerga Itunduen Erreklamazio Aretoa, lehendakariak, idazkariak eta 38.3 artikulua a) letran aipaturiko bokalek osatua.

b) Udal Zergen Erreklamazio Aretoa, ondoko hauek osatuko dutena: lehendakariak, idazkariak, 38.3 artikulua a) letran aipaturiko bokalek eta EUDEL Udalen Elkarrekin izendaturiko bi bokalek.

5. Erreklamazio Aretoa bat balio osoz eratzeko, ezinbestekoa izango da gutxienez lehendakaria, bokal bat eta idazkaria bertan egotea.

41. artikulua. Barne araudia

1. Auzitegiko kide guztiek, elkartuta edo banaka, haiei emandako funtzioak bete behar dituzte beste inori kasurik egin gabe eta haien erantzukizunpean.

2. Bokalak eta idazkaria behartuta daude haiek deituak diren bileretara joatera eta erabakiak hartu edo ebazpenak emateko deliberazioetan parte hartzera.

3. Auzitegiko lehendakariak deituko ditu bilerak, eta bilera aztertu beharreko gaiak jasoko dira deialdietan. Premiazko kasuetan, 24 ordu lehenago deitu daiteke bilera. Ezin izango da deliberatu edo erabaki zerrendan sartuta ez dagoen aztergaiarik, non eta bilera etorritako Auzitegiko kideen gehiengoak ez duen horrela erabakitzen.

4. Ebazpenak bertaraturako kideen gehiengo botoekin hartuko dira, eta berdinketa kasuan lehendakariak erabakiko du kalitateko botoaz. Batzar Osoko edo aretoetako kide guztiek izango dituzte hitza eta botoa.

5. Bertaraturakoek derrigorrez eman behar dute botoa, eta gehiengoarekin bat ez datorrenak boto partikularra eman dezake idatziz berrogeita zortzi orduko epean. Boto hori espedientean jaso beharko da, eta ebazpenean aipatu.

6. Auzitegiko kideek batera dihardutenean, bokalek, idazkariak edo, hala badagokio, lehendakariak proposaturako deitu ebazpen ponentziak eta prozedura ekonomiko-administratibo orokorra amaitzeko gainerako erabakiak.

7. Komeni den guztietan, lehendakariaren iritziz, edozein funtzionario edo Foru Administrazioako edo beste administrazio baterako lanean ari den edozein pertsona kualifikatari entzun diezaiolake Auzitegiak.

42. artikulua. Bileren aktak.

1. Kide anitzeko organoek egiten duten bilkura bakoitzeko akta bat egingo da. Aktan honakoak jaso behar dira: bertaraturakoak nortzuk diren, bilkura non egin den eta zenbat iraun duen, aztertu diren espedienteak, bozketen emaitza eta ebazpenen eta gainerako erabakiak ulertzeko modua.

2. Aktak bilkuran bertan edo ondorengoan onartuko dira. Idazkariak sinaturiko deitu eta lehendakariak ontzat emango deitu; gero, hurrenkeran zenbatuta gordeko dira Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren Idazkaritzan.

Aktak fitxategi automatizatuen bidez artxibatu daitezke.

3. Bilkura desberdintzat hartuko da, egun berean egin arren, aretoek deialdi desberdinak erabilia egiten duen bilera bakoitza. Bilkura bakoitzeko, beraz, akta bat egingo da.

4. Erreklamazioak banaka ebazten direnean, ebazpenen eta emaitzen zerrenda prestatuko da, eta Auzitegiaren bilkuren aktekin batera artxibatuko da.

43. artikulua. Antolaketa administratiboa.

1. Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa antolatzean, hiru maila bereizten dira: Unitate Administratiboa, Unitate Teknikoa eta bokaltzak.

2. Unitate Administratiboa Auzitegiaren prozeduraren tramitaziorako eta funtzionamendu orokorrerako behar diren egitekoak gauzatzeaz arduratuko da. Horren buru idazkaria izango da, eta horretarako behar diren administrariak izango ditu.

3. Unitate Teknikoa teknikariek osatuko dute, bokalek ikuskaturik, eta espedienteak aztertu eta ebazpen proposamenak egiteaz arduratuko dira, bai eta Auzitegiari agindutako funtzioak betetzeko behar diren beste jarduera batzuk bideratzeaz ere.

4. Bokaltzak arloen arabera banatuta daude, eta bokal batek zuzenduko ditu. Ebazpen ponentziak proposatuko dituzte, behin espedienteak analizatu eta aztertu ondoren, eta haien lana Unitate Teknikoarenarekin koordinatu eta horren jarduketak ikuskatu behar dituzte.

Bokaletako bat ez badago, gaixorik badago edo legezko beste arrazoi bat gertatzen bada, eta Auzitegiaren egoera dela-eta komenigarria bada, lehendakariak areto bereko beste bokal bati eman diezazkioke bere gaiak.

44. artikulua. Banakako jarduketak.

1. Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa banaka jardun daiteke lehendakariak izendatzen duen kidearen bitartez, zirkunstantzia hauetako bat gertatzen dela deritzon:

a) Onartezintasun deklarazioa bidezkoa izatea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 244. artikulua 4 apartatuan xedatutakoaren arabera, bai eta aipatu foru arauak 246. artikuluan jasotako berrikusteko errekurso bereziaren onartezintasuna ere.

b) Erreklamatzaileak aurkeztutako arazoaz Auzitegiak bakezko irizpidea berriro ezarrita duenean.

c) Erreklamazioa arazo faktikoei buruzkoa izanik, frogen erabateko gabezia duenean.

d) Jarduketen artxibatzea bidezkoa izatea erreklamatzaileak uko egin edo atzera egin duela-eta, erreklamazioa iraungi dela-eta edo erreklamatzailearen asmoa prozesurik kanpo bete dela-eta.

2. Erreklamazioak banaka ebazteko, Auzitegiko edozein bokal izendatu daiteke, bai eta idazkaria ere. Kasu konkretu bakoitzaren zirkunstantzien arabera izendatuko da ebazlea, eta bereziki begiratuko zaie bokal bakoitzaren arloei eta horietako bakoitzaren lan zamari, idazkariari berariaz dagozkion gaiak eragotzi gabe.

3. Jarduketak artxibatu edo erreklamazioak ez direnean onartzen, idazkariak izango du banaka ebazteko eskumena. Gainerako kasuetan, espedientearen tramitazioaren edozein unetan izendatu daiteke ebazlea, ebazpen ponentzia egin aurretik. Horretarako lehendakariaren erabakia beharrezkoa izango da, eta interesatuei jakinaraziko zaie, baina horren aurka ezin da inolako errekurtsorik jarri.

4. Erreklamazioa banaka ebazteko izendapenak ez dakar erreklamazio ekonomiko-administratiboak tramitatu eta ebazteko prozedura aldatzea. Espedientean ager daitezkeen arazo guztiak ere, hala badagokio inpugnatutako egintzaren etendura barne, banaka ebatziko dira.

2. sekzioa. Abstenitzea eta errefusatzea

45. artikulua. Abstenitzea.

1. Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren kideak eta erreklamazio ekonomiko-administratiboak tramitatzeko esku hartzen duten funtzionarioak, haiengan ondorengo apartatuan aipatuko diren zirkunstantzietako bat gertatzen bada, prozeduran esku hartzeari utzi beharko diote.

2. Hona hemen abstenitzeko arrazoiak:

a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokkeen beste batean; sozietate edo entitate interesatuen bateko administratzaile izatea, edo interesatuen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko ezkontza-ahaidetasuna izatea interesatuetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesatuen bateko administratzaileekin, edo prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin.

c) Aurreko letran aipaturiko lagunetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

d) Prozeduran peritu edo lekuko moduan aritzea.

e) Gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan-zerbitzuak eskaini izatea.

3. Abstentzia 46. artikulua 6 apartatuan jasotakoaren arabera dagokionari jakinarazi beharko zaio, eta xedapen horretan araututakoari jarraituz ebatzi.

4. Abstenitzeko arrazoiak biltzen dituzten funtzionarioen jarduketak ez du zertan ekarri haiek esku hartutako egintzen baliogabetasuna.

5. Auzitegiko lehendakariak edo, hala badagokio, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuko foru diputatuak agindu diezaietela, aipatu zirkunstantzietako bat biltzen duten pertsonen, espedientean esku hartzeari utzi diezaiotela.

6. Bidezko kasuetan ez abstenitzeak erantzukizuna ekar dezake.

46. artikulua. Errefusatzea.

1. 45. artikulua 2 apartatu jasotako kasuetan, interesatuek errefusa sustatu dezakete prozeduraren tramitazioaren edozein momentutan.
2. Errefusa idatziz aurkeztuko zaio Auzitegiari, eta haren arrazoia edo arrazoiak adierazi beharko dira. Ez da onartuko errefus generikorik, noren aurka doan eta horretarako arrazoia edo arrazoiak zeintzuk diren zehaztu gabe.
3. Errefusatuak ondorengo egunean adieraziko dio, ebatzi behar duenari, haren aurka aurkeztutako arrazoia berarengan gertatzen den edo ez.
4. Errefusatzeko arrazoia gertatzen dela onartzen badu, errefusatu berehala ordezte erabaki dezake ebatzi behar duenak.
5. Errefusatzeko arrazoia ukatzen badu, hiru eguneko epean ebatzi beharko da, behin egoki irizitako txosten eta egiaztapenak egin ondoren.
6. Hona hauek abstentzioari eta, hala badagokio, ordezenari buruz behar diren erabakiak hartu eta errefusa tramitatu eta ebatziko dute:
 - a) Idazkari, funtzionario eta bokalei dagokienez, Auzitegiko lehendakariak.
 - b) Auzitegiko lehendakariari dagokionez, ez-ohiko bilkuran eraturako kide anitzeko organoak berak, erregelamendu honek 38.6 artikuluan xedatutakoaren arabera ordeztu behar duena buru delarik.
7. Kasu horietan ematen den ebazpena espedientean jasoko da, eta interesatuei jakinaraziko zaie.
8. Arlo honetan emandako ebazpenen aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu. Dena den, errefusa aurkeztu daiteke, prozedura amaitzen duen egintzaren aurkako administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzean.

3. sekzioa. Erreklamazioen zenbatekoa eta metaketa¹⁴

46 bis artikulua. Erreklamazioaren zenbatekoa.¹⁵

1. Erreklamazioaren zenbatekoa bi hauetako bat izango da: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 57. artikuluan aipatzen den zerga zorraren elementu inpugnatuari edo horien baturari dagokion zenbatekoa, edo, bestela, erreklamazioaren xede den beste edozein egintza edo jarduketaren zenbatekoa. Eskabideak ez badu ahalbidetzen erreklamazioaren zenbatekoa zehaztea, kopuru zehaztugabeko erreklamaziotzat hartuko da.

¹⁴ Sekzio honen titulua ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hamar apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

¹⁵ Artikulu hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hamaika apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

2. Zerga oinarri bat edo balorazio egintza bat inpugnatzen bada, eta bidezko likidazioa egin gabe badago, erreklamazioaren zenbatekoa horien zenbatekoa izango da.

3. Administrazioaren egintzak inpugnatzen direnean erreklamatzailerak eskatutako itzulketa edo konpentsazioa ukatzeagatik edo haien zenbatekoa gutxitzeagatik, erreklamazioaren zenbatekoa hauxe izango da: eskatutako itzulketa edo konpentsazioaren eta Administrazioak aitortutakoaren arteko diferentzia gehi ordaindu beharreko zenbatekoa, halakorik bada.

4. Erreklamazioetan zergapekoak aitortutako zerga oinarri negatiboak gutxitzen dituzten egintzak inpugnatzen direnean, Administrazioak erregularizatutako zerga oinarri negatiboa izango da erreklamazioaren zenbatekoa.

Horrez gain, zerga zor bat ordaindu beharra exijitzen bada, bi kopuru hauetatik handiena hartuko da: aitortutako zerga oinarri negatibo erregularizatua, edo ordaindu beharreko zerga zorra.

Aitortutako zerga oinarri negatiboa erreklamatu ez ezik diru itzulketa bat ere eskatzen denean, kopuru hauetatik handiena hartuko da: deuseztatutako zerga oinarri negatiboa, edo aurreko 2. apartatua aplikatetik ateratzen den zenbatekoa.

5. Enbargo eginbide bat inpugnatzen denean, erreklamazioaren zenbatekoa exekutatu nahi den zenbatekoa izango da.

6. Erantzukizuna deribatzeke erabakien aurkako erreklamazioetan, deribatu nahi den zenbatekoa izango da erreklamazioaren zenbatekoa.

7. Zerga zehapenen aurkako erreklamazioetan, zenbatekoa izango da murriztapenak aplikatu aurretik zehapen horiei dagokiena.

8. Erreklamazioak aurkezten direnean bidegabeko diru-sarrerak itzultzeko eskaera bat, autolikidazioa zuzentzeko eskaera bat edo konpentsazio eskaera bat aurkezteagatik hasitako prozeduren ebazpenen aurka, eskatutakoaren eta Administrazioak aitortutakoaren arteko diferentzia izango da erreklamazioaren zenbatekoa. Eskabideak ez badu ahalbidetzen erreklamazioaren zenbatekoa zehaztea, kopuru zehaztugabeko erreklamaziotzat hartuko da.

9. Inpugnatutako administrazio-egintza jasotzen duen agiriak zor, oinarri, balorazio edo bestelako egintza bat baino gehiago biltzen baditu, zor, oinarri, balorazio edo egintza inpugnatu horietatik zenbatekorik handienekoa zein den eta hura hartuko da erreklamazioaren zenbatekotzat, eta, ondorio horietarako, ezingo dira batu agirian jasotzen diren kopuru guztiak.

10. Partikularren arteko jarduketa edo omisioengatik aurkezten diren erreklamazioetan, zenbatekoa izango da atxiki edo kontura sartu ez dena, jasanaraztea zegokiona, fakturan jaso behar zena, edo haietako handiena. Ondorio horietarako, aldi berean bat baino gehiago gertatzen badira, ez da zilegi izango guztiak batzea.

11. Prozedura batean emandako egintzak edo partikularren arteko jarduketa edo omisioak zehaztugabeko zenbatekotzat joko dira, kuantifikazio ekonomikorik ez dutenean edo kuantifikazio horri erreferentziarik egiten ez diotenean.

47. artikulua. Metatzea.¹⁶

1. Erreklamazio ekonomiko-administratiboetan egintza bat baino ezin da inpugnatu.

2. Auzitegiak, prozedura amaitu aurreko edozein unetan, erabaki dezake, ofizioz edo interesdunak eskatuta, erreklamazioak metatzea edo metaketa hori indargabetzea, eta, ordura arte eginda dauden edo erabakiaren edo eskaeraren egunean hasi diren jarduketak ezingo dira inolaz ere atzera eraman.

Metaketa eskatu dela ulertuko da pertsona edo entitate interesdunak zor, oinarri, balorazio, egintza edo jarduketa bat baino gehiagori buruzko erreklamazio bakarra aurkeztzen duenean eta hainbat interesdunek idazki berean erreklamatzeko dutenean. Horrelakoetan, metaketa erabaki espresurik gabe egingo da, salbu eta Auzitegiak horien banakapena komunikatzen duenean banakako erreklamazioetan izapidetzeko.

3. Erreklamazioak metatzeko, metaketa ukatzeko edo metaketa hori indargabetzeko erabakiak idazkariak hartuko ditu. Erabaki horien aurka ezingo da ezin errekurtsorik aurkeztu.

4. Metaketa behin ukatu edo indarrik gabe utzi ondoren, erreklamazio bakoitzak bere tramitazioarekin jarraituko du, eta, nahiz eta idazkiak ez egon bereizita, ez da beharrezkoa izango erreklamazioa jarri, berretsi edo balioztatzeko beste idazki bat aurkeztea. Indarrik gabe utzitako metaketatik ondorioztatzen den espediente bakoitzean, ordura arte egindako guztiaren kopia erkatua jaso beharko da.

5. Bereizita hasi diren bi erreklamazio edo gehiago metatzen direnean, amaieratik hurbilen dagoen espedientea etengo da harik eta gainerakoak egoera berean egon arte. Kasu horietan, metaketa pertsona edo entitate interesdunak eskatuta egin bada, tramitazioaren etenaldia ez da konputatuko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 245. artikuluan ebazpena emateko ezartzen den epearen ondorioetarako.

4. sekzioa. Interesatuak

48. artikulua. Interesatuak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 238. artikuluko 3 apartatuan ezarritakoaren arabera, prozeduran interesatu bat agertzea proposatzen denean eta agerikoa ez denean emango den ebazpenaren bidez bere eskubidea edo legezko interesa ukitu egingo denik edo ebazpenak eraginda geratu daitekeenik, pieza banandua irekiko da.

Prozesuan interesa duten guztiei eta aipatu egoera agerikoa ez duenari egoeraren berri emango zaie, eta hamabost eguneko alegazio epea emango zaie guztiei, epe hori ireki dela jakinarazi ondorengo egunetik aurrera.

Aipatu epea igarota, Auzitegiak bidezkoa ebatziko du alegazioei eta espedientean egon daitekeen dokumentazioari erreparatuta.

¹⁶ Artikulu hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hamabi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

Ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa jar daiteke.

49. artikulua. Interesatuaren heriotza.

1. Interesatuen legitimazioa harreman juridiko eskualdagarri batetik eratorzen denean, kausadunak kausatzailea ordeztu dezake tramitazioaren edozein momentutan.

2. Auzitegiak erreklamatzailerak hil dela dakienean, horren berri emango die kausadunei, egoki iritziz gero hilabeteko epean, komunikazioa jasotzen dutenetik hasita, prozedurara ager daitezten. Era berean, ohartaraziko die epearen barruan agertzen ez badira erreklamazioa iraungi eta espedienteak amaituko dela.

Dena den, erreklamazioaren iraungipena gauzatu gabe gelditu daiteke, auziak interes orokorrari eragiten badio edo hura substantziaztea komenigarria bada definitze eta argitze aldera.

3. Auzitegiak erreklamatzailerak hil dela dakienetik kausadunak agertu bitarteko denboran, ez da batere tramiterik egingo prozeduran. Denbora tarte hori ez da konputatuko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 245. artikuluan jasotako ebazpen epearen ondorioetarako.

50. artikulua. Ordezkaritza.

1.¹⁷ Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 239. artikuluan 1. apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe, ordezkaritza bidez jarduten denean, ordezkaritza hori frogatu beharko da interesdunaren sinadurarik gabe ageri den lehen idazkia aurkezten denean. Dena den, baldintza hori ez betetzeak ez du eragotziko idazkia aurkeztutzat jotzea, eta beti izango da posible hori zuzentzea erregelamendu honen 3. artikuluan jasotakoaren arabera.

2. Hamabost eguneko zuzenketa epe berean, interesatuak aukera izango du agerleak beraren izenean egindako jarduketak berresteko eta geroko jarduketei begira ordezkaritzaren egiaztatzea aurkezteko.

3. Ordezkaritza ez bada frogatzen, ezin izango da tramitatu interesatuaren izenean aurkeztutako inolako idazkirik.

Ordezkaritza frogatzea ezinbestekoa izango da espedienteak jendaurrean ikusgai jartzeko ere.

II. kapitulua. Prozedura orokor ekonomiko-administratiboa

1. sekzioa. Prozeduraren alderdi nagusiak

51. artikulua. Auzitegiaren jardun orokorra.

¹⁷ Apartatu hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hamahiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

1. Auzitegiaren jardunaren irizpideak askatasun teknikoak, bizkortasuna eta eraginkortasuna izango dira.
2. Espedienteak bideratzean, antzintasun ordena beteko da izaera berdinekoak badira, non eta frogatutako arrazoiak direla-eta ez den komeni beste ordena bat.
- 3.¹⁸ Prozedura ofizioz bultzatuko da, ezarritako epeak errespetatuz, zeinak ezingo baitira luzatu martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrek, 241.1 artikulua bigarren paragrafoan xedatutako kasuetan izan ezik. Ez da beharrezkoa izango prozedura amaitu dela espresuki adieraztea.

52. artikulua. Informazioa jasotzea, eta kopia ziurtatuak lortzea.

1. Interesatuak beraiek edo behar bezala kreditatutako ordezkari bidez ager daitezke, edozein momentutan prozeduraren tramitazioa zertan den jakiteko.
2. Era berean, idatziz eskatu dezakete kopia ziurtatua luzatzeko, Auzitegiak erreklamazio ekonomiko-administratiboan tramitatutako espedientean jasotako alderdi zehatzei dagokionez. Agiriaren kopia banan-banan eskatu beharko dira, eta ezin izango da egin espediente osoaren edukiari buruzko eskaera orokorrik.
3. Auzitegiko idazkariak luzatuko ditu kopia ziurtatuak, eta espedientean jasota utzi beharko da zer kopia eman den.
4. Erabaki arrazoitua erabiliz ukatu daiteke eskaera, horrek Auzitegiaren jardunari eragiten dionean edo indarrean dagoen araudiari jarraituz gordeta eduki behar den informazioa denean.
5. Kopia eskatzeak ez du etengo prozedura ekonomiko-administratiboaren inolako tramiterik.

53. artikulua. Agiriak aurkeztea, banakatzea eta itzultzea.

1. Interesatuek agiriarekin batera kopia bat ere aurkeztu dezakete, Idazkaritzak kopia hori alderatu eta jatorrizkoa itzuli diezaien; baina ez da jatorrizkoa itzuliko agiriaren izaera dela-eta erreklamazioa behin betiko ebatzi arte itzuli ezin dela ikusten denean.
2. Erreklamazio ekonomiko-administratiboa amaitzen denean, aurkeztu dituzten frogagiriak banakatzeko eta itzultzeko eska dezakete interesatuek. Auzitegiaren Idazkaritzak hartuko du erabaki hori. Nolanahi ere, agiriaren itzulketari eta kopia ziurtatuari buruzko jarduketa horiek guztiak erreklamazioaren espedientean jasoko dira.

54. artikulua. Jakinarazpenak.¹⁹

¹⁸ Apartatu hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hamalau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

¹⁹ Artikulu hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hamabost apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren

1. Pertsona edo entitate interesdunei eragin edo erreklamazio ekonomiko-administratiboeri amaiera ematen dieten egintza eta ebazpen guztiak interesdunei jakinarazi behar zaizkie.

Jakinarazpenak ebazpenaren testu osoa jaso behar du, baita adierazi ere zer errekurso aurkeztu daitezkeen, zer organoren aurrean aurkeztu behar diren eta horretarako zer epe dagoen. Dena den, horrek ez du eragotziko interesdunek egoki jotzen duten beste edozein errekurso aurkeztea.

2. Jakinarazpena bitarteko elektronikoak erabiliz egingo da zerga Administrazioarekiko harremanetan bitarteko horiek erabiltzeko obligazioa dagoenean. Horretarako obligaziorik ez bada, pertsona interesdunak adierazten duen eran egingo da jakinarazpena.

Idazki berean erreklamatzailerak bitarteko elektroniko bat eta jakinarazpenetarako helbide bat adierazten baditu, bitarteko elektronikoz egin beharko da jakinarazpena.

Baldin eta, erreklamatzailerak jakinarazpen elektronikoa behin aukeratu ondoren Administrazioarekin harreman elektronikoa izatera behartuta egon gabe ere, jakinarazpen modua aldatu nahi badu, espresuki adierazi beharko du hori, baita jakinarazpenetarako helbide bat eman ere. Hala egin ezean, ulertuko da komunikazio elektronikoa eusten diola.

Jakinarazpenak jasotzeko helbide bat adierazi eta gero, bitarteko elektroniko bat adierazten bada haiek jasotzeko, ulertuko da jakinarazpena azken bitarteko hori erabiliz egin beharko dela.

3. Jakinarazpena helbidean egin behar bada, eta pertsona edo entitate interesdunak hainbat helbide adierazi baditu jakinarazpenak jasotzeko, adierazi den azkena hartuko da kontuan. Erreklamazioaren espedientean ez bada ageri jakinarazpenetarako berriaz adierazitako helbiderik, jakinarazpenak pertsona edo entitate interesdunaren zerga helbidean egin ahal izango dira auzitegiak hura ezagutzen badu. Aldiz, ezinezkoa bada apartatu honetan jasotako moduko helbiderik ezagutzea, edo, jakinarazpen pertsonala behin saiatu ondoren ez bada lortu hura egitea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 108. artikuluan ezarritakoari jarraituz egin beharko da jakinarazpena, arau horren 239. artikuluan ezarritako eran.

4. Jakinarazpena paper formatuan egiten bada, posta ziurtatu bidez edo funtzionarioen bitartez egin ahal izango da. Azken kasu horretan, funtzionarioak gertaerak jaso beharko ditu eginbide batean, eta jarduten duen helbidean eginbide horren kopia utzi.

5. Erreklamatzailerak ezberdinak diren kasuetan, gertatzen bada erreklamatzailerak jakinarazpenetarako helbide desberdin bat adierazi duela, pertsona edo entitate interesdun bakoitzarentzat adierazitako helbide mantenduko da, non eta denentzat ez den espresuki adierazten helbide berdina. Era berean, metaketak ezetsi edo indarrak gabe uzten diren kasuetan, jakinarazpenetarako helbide bakarra adierazi bada, helbide hori pertsona edo entitate interesdun guztientzat mantenduko da, salbu eta espresuki beste batzuk adierazten direnean.

55. artikulua. Prozeduraren kostuak.²⁰

1. Auzitegiak, prozeduraren kostuak ordaintzeko ezartzeari begira, pentsatu dezake erreklamazioan ausarkeriaz jokatu dela, funtsik gabea dela agerikoa izateagatik, eta fede txarrez eginga dagoela, egiten diren eskaerek edo sustatzen diren intzidenteez eskubide-abusu argi bat edo prozeduraren iruzurra ekartzeagatik.

Zehazki, fede txarra dagoela pentsatu daiteke aurkezten diren erreklamazio ekonomiko-administratiboan edo, kasua bada, errekurtsoen helburu bakarra prozedura atzeratzea denean. Auzitegiak behar bezala arrazoitu beharko ditu zirkunstantzia horiek.

2. (Edukirik gabe)²¹

3. Prozeduraren kostuak ordaindu beharra ezartzen bada, Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 61.2 artikuluan aipatzen den epea emango dio ordaintzera behartutakoari, kostuak ordaindu ditzan. Epe hori amaitutakoan kostuak ordaindu ez badira, premiamenduzko bidetik ordainaraziko dira.

4. Erreklamaturakoa osorik edo partez onesten bada, prozeduraren kostuak ez dira ordainaraziko.

5. Kostuak ordaintzeko kondena ezartzen duen ebazpen ekonomiko-administratiboaren aurka ezingo da aurkeztu ezin errekurtsio administratiborik.

2. sekzioa. Auzialdi bakarreko prozedura

1. azpisekzioa. Hasiera

56. artikulua. Erreklamatzeko idazkia.²²

1.²³ Prozedura hasteko, idatzi bat zuzendu behar zaio Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboari, erregela-mendu honen 2. artikuluan xedatutakoari jarraituz,

²⁰ Artikulu hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikuluko bakarreko hamasei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

²¹ Apartatu hau urriaren 5eko 12/2021 Foru Dekretuaren 2. artikuluko bat apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen ditu (2021/10/8ko GAO). Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean.

²² Artikulu honetako 5. apartatua ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikuluko bakarreko hamazazpi apartatuak ezabatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

²³ Apartatu hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikuluko bakarreko hamazazpi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

pertsona edo entitate erreklamatzailerak eta, egonez gero, ordezkaria behar bezala identifikatuta.

2. Erreklamatzeko idazkian argi eta garbi jaso behar da zein egintza edo jarduketaren aurka egiten den, eta horren edo eskabidearen kopia erantsi behar da ustezko egintza bada edo egintza zein espedientetan jasota dagoen adierazi behar da kopiarik ezin bada aurkeztu.

3. Erreklamatzeko idazki batek aurreko apartatueta aipatutako baldintzetako bat betetzen ez duenean, Auzitegiko idazkariaren komunikazio bidez hamabost eguneko epea zabalduko da eskabideko akatsak zuzentzeko, erregelamendu honek 2. eta 3. artikuluetan jasotakoaren arabera. Epea ez bada betetzen, ordea, idazkia aurkeztu gabetzat hartu eta besterik gabe artxibatuko da.

4. Erreklamatzeko idazkian erreklamazioaren gaiari buruzko alegazioak jaso daitezke, eta horiei buruz egoki iritzitako frogak aurkeztu edo proposatu daitezke idazkian. Idazki horretan erreklamatzailerak beretzat gorde dezake alegazioak egiteko eskubidea edo, behin espedientea erakutsita, horiek zabaltzeko eskubidea.

5. Erreklamazioak eta tramitazioaren gainerako alderdiak aurkezteko teknika eta bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoak erabil daitezke horretarako onartzen diren sistemen bitartez. Aipatu sistemak erabiliko badira, informazioaren egiazotasuna, osotasuna, artapena, konfidentzialtasuna eta bi alderdiek agiriari jaso izana bermatu behar dituzte.

2. azpisekzioa. *Tramitazioa*

57. artikulua. Erreklamatzeko espediente administratiboa osatzea.

1. Behin Auzitegiak erreklamazio idazkia jaso eta, hala badagokio, hura zuzenduta, hamabost eguneko epean Auzitegiko idazkariak espediente administratiboa eskatuko dio auzipeko egintza edo jarduketa eman zuen organoari.

2.²⁴ Inpugnatutako egintza administratiboa emateko kontuan hartutako aurrekari, deklarazio eta agiri guztiak jaso behar ditu espediente administratiboak.

Hamabost eguneko epean, kasuan kasuko organoak, bertako titularraren zuzendutako erantzukizunpean, espediente administratibo osoa igorri behar dio Auzitegiari, barruan jasotzen dituen jarduketak eta egintzak zerrendatuta. Espedientea ezin bada igorri adierazitako epean, horren arrazoia jakinarazi behar da epe berean.

3. Espedientea osatzeko eskatu dezake Auzitegiak, ofizioz edo edozein interesatuen eskariz.

Interesatuak eskatuz gero, alegazio epearen barruan egin behar da idatziz, espedientea osatu behar duten eta barruan ez dauden aurrekariak zehaztuta. Espedientea osatzeko eskatuz gero, alegazio tramitea etengo da. Auzitegiak

²⁴ Apartatu hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hemezortzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

eskabideari ezetza ematen badio alegazioak aurkezteko epea berriz hasiko da, baina soilik interesatuak eskabidea aurkeztean gelditzen zen denbora amaitu arte.

Auzitegiak eskabidea onartzen badu, falta diren aurrekariak eskatu beharko dizkio egintza eman duen organoari, eskatutakoa gehienez hamabost eguneko epean igor dezan. Aurrekariak aurkezten direnean edo horiek ez daudelako nahiz espedientea osatzen ez dutelako adierazpena aurkezten denean, araudian jasotakoa betez, Auzitegiak alegazioak aurkezteko beste epe bat emango du.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 100.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, prozedura ekonomiko-administratiboak ebazteko epea konputatzean behar bezala arazoitutako etenalditzat hartuko da alegazioen tramitea eten den unetik berriz hasi den arte edo beste epe bat eman arte igarotako tartea.

4. Aurreko 2 apartatuan finkatutako epearen barruan jasotzen ez bada espedientea, idazkariak berriro eskatuko du hamabost eguneko epean igorri edo osatzeko, bidezko erantzukizunak eragotzi gabe, nahiz eta tramitazioarekin jarraitu daitekeen Auzitegiak ezagututako aurrekariak eta, hala badagokio, interesatuak aurkezten edo aurkeztu dituenak erabilia.

58. artikulua. Alegazio epea.

1. Behin espedientea Auzitegiaren esku geratuta, eta erreklamatzeko idazkian alegaziorik aurkeztu ez direnean edo tramite hau berriaz eskatu denean, espedientea ikusgai jarriko da interesatu guztientzat hilabeteko epe luzaezinean. Epe horretan haien eskubidearen arabera komeni zaizkien alegazioak aurkeztu beharko dira, bai eta bidezko frogak ekarri eta egoki deritzeten frogak egiteko eskatu ere.

2.²⁵ Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 241.1 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, Foru Auzitegi Ekonomiko- Administratiboaren egoitzan jarriko da ikusgai espedientea.

3. Alegazio idazkian, gertaerak, zuzenbidezko oinarriak eta eskaera zehatza jaso beharko dira, datu pertsonalekin eta prozedura identifikatzeko datuekin batera. Idazkian frogak egiteko proposamena ere egin daiteke, edota egoki deritzeten agiriak erantsi.

4.²⁶ *Erreklamatzailleak edo interesatuak prozeduraren edozein fasetan alegaziorik ez aurkezteak berarekin ekarriko du erreklamazioa bertan behera utzi duela ulertzea; hori gertatzen bada, erreklamazioa artxibatu egingo da, erreklamatzailleak zer gertaeratan edo zuzenbide arautan ez dagoen ados ez jakiteagatik..*

59. artikulua. Froga.

²⁵ Apartatu hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hemeretzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

²⁶ Apartatu hau zuzenbidean erabat deusez deklaratu du Euskal Autonomia Erkidegoko Justiziako Auzitegi Nagusiak, uztailaren 2ko 397/2013 Epaian. Epaiaren irmotasuna Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da, ediktu bitartez, 2013ko irailaren 18an.

1. Funtsean agiri bidezko frogak izango dira. Dena den, kasu berezia izateagatik komenigarria denean, lekukoen bidezko frogak edo alderdi baten adierazpenen bidezko frogak egin daitezke, notario akta bidez edo Auzitegiko idazkariaren edo horrek eskuordetutako funtzionarioaren aurrean, bidezko akta eginda; era berean, peritu frogak ere egin daitezke.

Froga bideei eta balorazioari dagokienez, Kode Zibilak eta Auziperatze Zibilaren Legeak jasotako xedapenak aplikatuko dira artikuluko honetan ezarritakoaren aurka ez doan neurrian.

2. Interesatuak espedientea osatu dezake, alegazio idazkiarekin batera eskubidezkoak dituen agiri, publiko edo pribatu guztiak aurkeztuta. Era berean, erreklamazioa ebazteko garrantzizkotzat hartzen dituen eta aurkeztu ezinekoak dituela kreditatzen dituen frogak proposatu ditzake, betiere non dauden adierazita.

3. Horiek onartuz gero, frogak gauzatzeko behar dena erabakiko du idazkariak, eta frogaldia hamabost eguneko epe luzaezinean irekitzea ebatziko du, non eta ez den beharrezkoa tramiteen izaera dela-eta epe desberdin bat. Azken kasu horretan, berariaz adierazi beharko da.

4. Bidezkotzat hartu ez direlako frogak gauzatzeko ukatuko bada, berariaz eta arrazoituta erabaki behar da, erreklamazioan bilatutako asmoez erabakitze garrantzitsuak ez diren gertaera edo datuei buruzkoak direnez edo dagoeneko espedientean daudenez besteko daturik eskaintzen ez dutenez. Gainera, interesatuei jakinaraziko zaie. Erabaki horiek tramitezko egintzak baizik eta dira izango, eta ezin izango dira errekurritu. Nolanahi ere, kontu hori alegatu daiteke erreklamazioari buruzko ebazpena inpugnatzean.

5. Auzitegiak ofizioz ere eskatu ditzake erreklamazioa ebazteko egoki deritzen frogak. Kasu horretan, emaitzaren berri emango die interesatuei, eskubidezkoak dituzten alegazioak aurkeztu ditzaten hamabost egunetan epe hori ireki dela jakinarazten denetik aurrera.

6. Froga egiteko beharrezkoa denean prozedurara agertutako interesatuak joatea, idazkariak zein froga egingo den jakinaraziko die guztiei, behar adinako aurrerapenez, bai eta frogak non, noiz eta zer ordutan egingo diren ere. Hala badagokio, interesatuek teknikari laguntzaileak izendatu ditzakete. Jarduketa guztien akta egingo du idazkariak edo horren ordeko funtzionarioak, eta ikusgai jarriko zaie interesatu guztiei, hamabost eguneko epean alegazioak aurkeztu ahal izateko.

7. Auzitegiak frogez egindako balorazioa ebazpenean jasota utziko da.

8. Interesatuek proposatuta, Administrazioak ordaindu behar ez dituen gastuak dakartzaten frogak egin behar badira, Auzitegiak ordainketa aurreratzeko exijitu diezaioke eskatzaileari, behin froga eginda ateratzen den behin betiko likidazioa eragotzi gabe.

60. artikulua. Txostenak eskatzea.

1. Auzitegiak erreklamazioa ebazteko egoki edo beharrezko deritzen txosten guztiak eskatu diezazkioke auzipeko egintza eman zuen organoari nahiz horretarako informazioa eman dezaketen beste organo batzuei ere.

2. Txosten hori egiten denean, interesatuei ikusgai jarriko zaie berriro hamabost egunetan, epe hori ireki dela jakinarazi ondorengo egunetik aurrera, txosten horri dagokionez egoki deritzotena alegatu dezaten.

3. Ebazpena jakinarazteko gehieneko epearen ondorioetarako, ez da sartuko Administrazioako beste organo batzuek artikuluko honetan aipatzen diren txostenak igortzeko erabilitako tarteak. Arrazoi horregatik aipatu epearen konputuan sartu ez diren denbora tarteak ezin dira izan bi hilabetetik gorakoak.

61. artikulua. Prozedurako gorabeherak.

1. Prozedurako gorabeheratzat hartuko dira arazoaren funtsa ez diren baina harekin edo prozeduraren baliotasunarekin lotuta dauden alderdiei buruzko gorabeherak, horiek ebaztea aurretiazko eta beharrezko baldintza bada erreklamazioa tramitatzeko.

Besteak beste, halakotzat hartuko dira interesatuen nortasunari buruzkoak edo erreklamazioak tramitatu edo ebatzi behar dituzten organoetako kideen abstentzio edo errefusari buruzkoak.

2. Prozedurako gorabeherak hamabost eguneko epean aurkeztuko dira, horiek eragin dituen gertaera edo egintza fedemailea izan dela seguru jakin eta ondorengo egunetik aurrera.

3. Nolanahi ere, arazoaren funtsari buruzko ebazpen espresua eman aurretik ebatzi behar dira prozedurako gorabeherak. Auzitegiak edo horretan banaka diharduen edozein kidek eman dezake.

4. Gorabehera bati buruzko ebazpenaren aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu. Nolanahi ere, erreklamazioa amaitzen duen ebazpena inpugnatzean prozedurako gorabeheraren gaia berriro aurkeztu daiteke.

(61 bis artikulua.)²⁷

62. artikulua. Berrikuspena luzatzea.

Auzitegiak bidezkotzat jotzen badu interesatuek aipatu ez dituzten kontuak aztertu eta ebaztea, prozeduran agertu direnei azalduko dizkie eta hamabost eguneko epea emango die haiei buruzko alegazioak egiteko, epe hori zabaldu dela jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita.

63. artikulua. Tramitazio laburra.

1. Espediente administratiborik eskatu gabe eman daiteke ebazpena, erreklamazio idazkiari eta horri erantsitako aurrekari, datu edo agiriei dagokionez erreklamazioa ebazteko behar diren elementu guztiak Auzitegiaren esku daudenean. Kasu horretan, jarduketara hori arrazoitu behar da prozedura amaitzen duen ebazpenean.

Era berean, espedientea edo prozeduraren beste edozein tramite alde batera utzi daiteke, ordura arte erreklamazioaren espedientean dauden datuak ikusirik hura ez onartzeko arrazoi bat hauteman daitekeenean ere.

²⁷ Artikulu hau urriaren 5eko 12/2021 Foru Dekretuaren 2. artikuluko bi apartatuak ezabatu egin du. Aipatutako foru dekretuak Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen ditu (2021/10/8ko GAO). Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean.

2. Halaber, espedientea ikusgai jartzeko tramitea alde batera utzi daiteke, erreklamatzailleak alegazioak erreklamazio idazkian aurkeztu eta frogak ekarri dituenean ikusgai jartzeko berariaz eskatu gabe nahiz tramite horri berariaz uko egin zaionean.

3. azpisekzioa. Ebaztea

63 bis artikulua. Ebazpena.²⁸

1. Erreklamazio ekonomiko-administratiboa ebazpen bidez amaituko da, eta horrek erabaki hauetakoren bat jasoko du:

a)²⁹ Erreklamazioa ez onartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 244.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, edo beste kasu hauek gertatzen direnean: Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa eskumen gabea denean, foru arau bereko 235. artikuluan jasotakoari jarraituz, eta Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 14.1 artikulutik ondorioztatutako berraztertze errekurtsua aurrez aurkezten ez denean edo eskumengabetasun arrazoiak daudenean.

b) Erreklamazioa osorik edo partzialki baiestea, eta, haren ondorioz, erreklamaturako egintza erabat edo partzialki deuseztatzea. Hala badagokio, erreklamazioaren xede den egintza zuzenbidearen arabera izateko hartu beharreko neurriak zehaztuko ditu.

c) Erreklamazioa ezestea.

d) Jarduerak artxibatze adierazpena, erreklamazioaren oinarri den eskubideari uko egiteagatik, erreklamazioan atzera egiteagatik, auzialdia iraungitzeagatik, erreklamazioa aurkeztu duen pertsonaren edo entitatearen asmoak ebazpena eman aurretik betetzeagatik edo antzeko beste arrazoi batzuegatik.

2.³⁰ Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 245.1 artikuluko lehen paragrafoan ezarritakoa gorabehera, eta artikuluko hirugarren paragrafoan eta foru arau bereko 100.2 eta 220.3 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, Auzitegiak zilegi izango du ebazpena jakinarazteko gehieneko epea etetea, arrazoituta eta interesdunari entzun ondoren, zirkunstantzia hauetako edozein gertatzen denean:

a) Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen esparruan amaitu gabeko prozedura bat dagoenean, dena delako ebazpenaren

²⁸ Artikulu hau urriaren 5eko 12/2021 Foru Dekretuaren 2. artikuluko hiru apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen ditu (2021/10/8ko GAO). Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean.

²⁹ Letra hau azaroaren 22ko 18/2022 Foru Dekretuaren 3. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamendua, sozietateen gaineko zergaren erregelamendua eta zerga berrikuspenaren erregelamendua aldatzen ditu (2022/11/28ko GAO). Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean.

³⁰ Apartatu hau azaroaren 22ko 18/2022 Foru Dekretuaren 3. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamendua, sozietateen gaineko zergaren erregelamendua eta zerga berrikuspenaren erregelamendua aldatzen ditu (2022/11/28ko GAO). Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean.

edukia zuzenean eta nabarmen baldintzatzen duena, etendura agintzen duen ebazpena jakinarazten denetik etendura kentzen duen Auzitegiaren ebazpena jakinarazten den arte.

b) Europar Batasunaren esparruan amaitu gabeko prozedura bat dagoenean, dena delako ebazpenaren edukia zuzenean eta nabarmen baldintzatzen duena, etendura agintzen duen ebazpena jakinarazten denetik etendura kentzen duen Auzitegiaren ebazpena jakinarazten den arte.

c) Prozedura ebazteko ezinbestekoa bada jurisdikzio organo batek aurretiaz zerbait erabakitzea, dena delako ebazpenari zuzenean eta nabarmen eragiten diona, etendura agintzen duen ebazpena jakinarazten denetik etendura kentzen duen Auzitegiaren ebazpena jakinarazten den arte.

3. Automatikoki etengo da ebazpena jakinarazteko gehieneko epea, interesdunek espedientea izapidetzen edo ebazten parte hartu behar duen edozein bokalen errekusazio intzidentea sustatzen dutenean, intzidentea planteatzen denetik ebazpen espresua eman arte.

4. Interesdunei jakinarazi beharko zaizkie bai prozeduraren etendura, bai kentzea.

64. artikulua. Deuseztatzeko errekurtsoa.³¹

1. Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorak, 245 bis artikuluan ezartzen duen deuseztatze errekurtsoa Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan gaiaren arabera eskudun den Salak ebatziko du.

2. Deuseztatze errekurtsoa aurkezteko idatziak erregelamendu honen 2. eta 56. artikuluetan aipatzen diren beharkizun guztiak bete behar ditu, eta bidezkoak diren alegazioak eta probak ere jaso beharko ditu. Beharkizun horietakoren bat ez betetzeak edo errekurtsoa epez kanpo aurkezteak berekin ekarriko du hura ez onartzea, eta ez da egongo ezer zuzentzeko aukerarik.

3. sekzioa. Errekurtsoak bide ekonomiko-administratiboan

65. artikulua. Berrikusteko errekurtso berezia.

Berrikusteko errekurtso berezian aplikaziozkoa izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorak, 246. artikuluan jasota ez dauden kontu guztietan auzialdi bakarreko prozedurarako xedatutakoa.

4. sekzioa. Partikularren jarduketei edo omisioei buruzko erreklamazioen prozedura

66. artikulua. Partikularren zerga arloko jarduketei eta omisioei buruzko erreklamazioen prozedura.

³¹ Artikulu hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hogeita bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

1. Artikulu honetan xedatutakoa eta, bestela, prozedura ekonomiko-administratibo orokorrari buruzko arauak izango dituzte gidari partikularrek egiten dituzten Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 233.4 artikuluko zerga arloko jarduketa edo omisioen aurkako erreklamazioek.

2. Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak erreklamazio horiek ezagutu eta ebazteko eskumena izango du kasu hauetan:

a) Atxikipenak eta bestelako konturako ordainketak izanez gero, Gipuzkoako araudia aplikaziozkoa zaienean Ekonomia Itunean jasotakoaren arabera.

b) Zergen jasanarazpenak izanez gero, eragiketa Gipuzkoan egin dela ulertzen denean Ekonomia Itunean jasotakoaren arabera.

3. Erreklamazioa hilabeteko epean aurkeztu behar da, atxikipena edo konturako sarrera egin edo omititu dela, erreklamazioa sortu duen jasanarazpena gertatu dela edo ordezkaren eta zergadunaren arteko harremanen ondorioz eratorritako ordezkapena izan dela jasota geratu ondorengo egunetik aurrera.

Baldin eta enpresari eta profesionalek faktura egin eta emateko betebeharrari buruzko erreklamazioak badira, aipatu epea kontatzen hasiko da obligazio hori betetzea formalki eskatu eta hilabetea igaro denetik.

4. Prozedura Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboari zuzendutako idazkia aurkeztean hasiko da. Erreklamazioa jarritzat eskatzera edo erreklamatzaileak bere eskubidea oinarritzeko erabilitako alegazioak aurkeztera mugatu daiteke aipatu idazkia.

Erreklamazio idazkian, erregelamendu honek 2. eta 56. artikuluetan egindako aipamen orokorrez gain, auzipeko pertsonaren nortasuna eta helbidea jaso behar dira.

Erreklamatzaileak bere esku dituen aurrekari guztiak edo agiritegi edo erregistro publikoetan jasotakoak aurkeztu behar ditu eta, betiere, Auzitegiaren eskumena erabakitzen dutenak ere bai.

Datu horiek ez badira aurkezten, behin 56.3 artikuluan jasotako zuzenketa errekerimendua eginda, erreklamazio idazkia artxibatu egingo da.

5. Behin Auzitegian erreklamazio idazkia jasota, auzipeko pertsonari jakinaraziko zaio berehala, jakinarazpenaren ondorengo egunetik hasita hilabeteko epean prozedurara ager dadin, haren esku dituen aurrekari guztiak edo agiritegi edo erregistro publikoetan jasotakoak aurkezturik eta, egoki iritziz gero, haren eskubidearen arabera komeni zaizkion alegazioak eginik.

Prozeduraren geroagoko momentu batean agertzeak ezin izango du ez errekurtsogilea kaltetu eta ez lehendik amaitutako tramite edo epeak berriro ireki.

Erreklamatzailea ez bada prozedurara agertzen, prozedurarekin jarraitu ahal izango da bakarrik erreklamatzaileak aurkeztutako aurrekariak erabilia, Auzitegiaren instrukzio ahalmenak eragotzi gabe. Gauzak horrela, aurrekariak osatzeko eskatu dezake Auzitegiak, ofizioz edo interesatuaren eskariz.

6. Erreklamatzaileak ez badu alegaziorik aurkeztu erreklamazio idazkian edo egin baditu tramite hau berriaz eskatuta, jarduketan berri emango zaie, elkarren

segidan, erreklamataileari eta erreklamatuari, hilabeteko epean, alegazioak egin eta bidezko frogak aurkeztu edo proposatu ditzaten.

Bestela gertatzen bada, nahikoa izango da jarduketan berri bakarrik erreklamatuari ematea, aurreko apartatuan prozedurara agertzeko emandako hilabeteko epean alegazioak egin eta bidezko frogak aurkeztu edo proposatu ditzan.

7. Ebazpenean auzipeko jarduketa bidezkoa ote den adieraziko da eta, hala badagokio, eskubide eta betebeharren adierazpena egingo da. Ebazpen hori bi alderdiei jakinaraziko zaie, eta haren aurka egoki deritzeten errekursoak jar dezakete.

V. TITULUA. EBAZPENAK EXEKUTATZEA

I. kapitulua. Ebazpenak exekutatzea

1. sekzioa. *Ebazpen administratiboak exekutatzeko arau orokorrak*

67. artikulua. Ebazpen administratiboak exekutatzea.

1. Berrikusteko prozeduretako ebazpen-egintzak dauden bezala exekutatu dira, salbu eta hasieran inpugnatutako egintzaren exekuzioa etetea erabaki denean eta etendura hori beste auzialdi batzuetan mantentzen denean.

2.³² Errekurtso edo erreklamazio ekonomiko-administratibo baten ebazpena exekutatzek dakartzan egintzak hilabeteko epean jakinarazi behar dira, ebazpena exekuziorako organo eskudunaren erregistroan sartzen denetik hasita.

Zergapeko batek obligazio konexoren bat badu errekurtsu edo erreklamazioan inpugnatutako ebazpenarekin lotuta, zerga Administrazioak, ofizioz edo alderdiak eskatuta, hilabeteko epean erregularizatu behar du obligazio hori, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 231.3 eta 244.7 artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

Exekuzio egintzak ez dira inpugnatutako egintzak ekarri duen prozeduraren parte izango.

Ebazpenak exekutatzeko orduan aplikagarriak izango dira administrazio zuzenbideko xedapen orokorretan eskualdagarritasunaz, egintza akastunen bihurketaz, egintza eta tramiteen kontserbazioaz eta haien balioztapenaz jasotzen diren arauak.

3. Auziaren funtsari buruz ebaztearen ondorioz erabat edo zati batean deuseztatzen bada auzipeko egintza, deuseztapenaren kausak ukitzen ez dituen egintza eta tramiteak kontserbatu egingo dira, eta haien edukiari eutsiko zaio oso-osorik.

Likidazioak deuseztatzen badira, berandutza interesak exijituko dira likidazio berriaren zenbatekoaren gainean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko

³² Apartatu hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hogeita bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 26.5 artikuluan jasotakoaren arabera.

Erreklamazioa zati batean onesten duen ebazpenak zerga kuota, sartu beharreko kopurua edo zigorra aldatzen ez duenean, auzipeko egintza zati batean aldatuz exekutatu daiteke ebazpena; halaber, modu berean aldatuko dira zati batean deuseztatutako egintzaren ondoriozkoak. Horrelakoetan, hasierako egintzak iraun egingo du, baina ebazpenaren edukiaren arabera zuzenduko da, eta aurretik egindako zergabilketako egintzak mantendu egingo dira, baina egindako traben eta bahituren zenbatekoak egokitu egingo dira, hala badagokio.

Errekurritutako egintzaren zenbateko osoa edo zati bat sartu bada, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 72.1 artikuluan jasotako konpentsazioa egingo da, hala badagokio.

4. Aurreko apartatuetan xedatutakoa xedatuta ere, formazko akatsen bat egonik auziaren funtsari buruz ebazpena ematea bidezkotzat jotzen ez denean, jarduketetan atzera egiteko aginduko da, deuseztatutako egintzaren haritik gero etorritako guztiak deuseztatuko dira eta, hala badagokio, bermeak edo oker sartutako kopuruak itzuli egingo dira, berandutza interesak ordainduta.

5. Ebazpenak errekurtsua edo erreklamazioa osorik onesten badu eta beste egintza baten beharrik ez badago, honela exekutatu behar da ebazpena: deuseztatutako egintzaren ondoriozko egintza guztiak deuseztatuko dira eta, hala badagokio, bermeak edo okerreko sarrerak itzuliko dira, berandutza interesak gehituta.

6. Ebazpen administratiboak auzipeko egintza berresten badu eta hori borondatez ordaintzeko epealdian etenda egon bada, ebazpenaren jakinarazpenak hasiera emango dio Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 61.2 artikuluan jasotako ordainketa epeari.

Erreklamazio ekonomiko-administratiboaren kasuan, aipatu epea erreklamazio ekonomiko-administratiboaren ebazpena exekutatzeko egintza administratiboa jakinaraztean hasiko da.

Auzipeko egintza zorraren epe exekutiboan eten bada, ebazpenaren jakinarazpenak bidezko egingo du premiamendu prozeduraren jarraipena, premiamenduzko probidentzia etendurak ondorioa sortu duen egunaren aurretik jakinarazi bada, edo haren hasiera, hala ez bada.

Etenaldian sortutako berandutza interesak honela likidatuko dira:

a) Etendurak borondatezko epean sortu badu ondorioa, etendurak ondorioa izan zuen egunetik administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpenaren egunera bitartean sortutako berandutza interesak likidatuko ditu etendura erabaki duen organoak.

Etendura Auzitegiak erabaki duenean, auzipeko egintza administratiboa eman zuen organoak egingo du aurreko paragrafoan aipatutako berandutza interesen likidazioa.

Etendurak berraztertze errekurtsuan bakarrik izan badu ondorioa eta errekurtsu horren ebazpenari erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri bazaio, borondatez ordaintzeko epearen mugaegunaren biharamunetik berraztertze errekurtsua ebatzi den egunera arte sortutako berandutza interesak likidatuko dira.

a) Etendurak epe exekutiboan sortu badu ondorioa, etendurak ondorioa izan zuen egunetik administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpenaren egunera bitartean sortutako berandutza interesak likidatuko ditu zergabilketako organoak.

Etendurak berraztertze errekurtsioan bakarrik izan badu ondorioa eta errekurtsio horren ebazpenari erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri bazaio, etendurak ondorioa izan duen egunetik berraztertze errekurtsioa ebatzi den egunera arte sortutako berandutza interesak likidatuko dira.

7. Emandako bermea itzultzea bidezkoa dela egiaztatuz gero, organo eskudunak ofizioz itzuliko du, interesatuak eskatu behar izan gabe.

8. Berrikusteko prozedura bereziak ebazten dituzten erabakiak exekutatzeko, aurreko apartatuetan xedatutakoa aplikatuko da.

68. artikulua. Egintza eteteko aurkeztutako bermeen murrizpen proportzionala.

1. Jarritako errekurtsio edo erreklamazioa partzialki onetsi eta ebazpena aurreko artikuluko 1 apartatuan xedatutakoaren arabera exekutatzetik ez dagoenean, interesatuak emandako bermearen murrizketa proportzionalerako eskubidea izango du, hala eskatzen badu.

Horretarako, organo eskudunak hamabost eguneko epean kuantifikatu beharko du, interesatuak eskaera aurkeztu duenetik aurrera, errekurtsio edo erreklamazioaren ebazpena gauzatuko bazen aterako zen obligazioa. Kalkulu horrek bidezko murrizpenaren zenbatekoa zehazteko balio izango du eta, beraz, eratuta geratu behar den bermearen zenbatekoa.

Hala ere, 7.3 artikulua arabera, aurreko bermeak bere horretan dirauen egintza, zor edo obligazioaren zenbatekoa ordaintzeari lotuta jarraituko du, eta indarrean segituko du harik eta bere horretan dirauen egintza, zor edo obligazioaren zenbatekoa estaltzen duen beste berme bat formalizatu arte.

2. Etendura erabaki zuten organoek izango dute eskumena bermea ordeztzeko.

2. sekzioa. Ebazpen ekonomiko-administratiboak exekutatzeko arau bereziak

69. artikulua. Ebazpena betetzea.³³

Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren ebazpenak exekutatu behar dituzten organoek ebazpenak argitzeko eskatu ahal izango diote Auzitegiari.

70. artikulua. Ebazpen administratiboak luzatzea.

1. Jarritako erreklamazioaren ebazpenak ondorioa izan dezake erreklamazioa jarri ondorengo egintza, jarduketa edo omisio guztietan, baldin eta erreklamazioa jartzeko idazkian aipatutakoaren berdin-berdinak badira alderdi guztietan, eta administrazio bidean irmoak ez badira.

³³ Artikulu hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hogeita hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

2. Horretarako, erreklamatzailerak edo hasierako erreklamazioan interesa duenak goian aipatu diren egintza, jarduketa edo omisioak jasorik dituzten agiriak aurkeztu beharko ditu hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi ondorengo egunetik aurrera.

3. Ebazpena eman duen batzar osoak, aretoak edo Auzitegian banaka jardun den kideak, bidezko tramiteak egin ondoren, hura exekutatzeko erabakia hartuko du. Bertan aipatuko dira ebazpenaren eraginpeko egintza, jarduketa edo omisio guztiak, bidezko errekursoei buruzkoak barne direla.

4. Atxikipenari edo konturako sarrerari buruzko jarduketa edo omisio baten aurka jarritako erreklamazioaren ebazpenak ondorioa zabaldu dezake erreklamazioaren ondorengo jarduketa edo omisio guztietara, betiere horiek erreklamazio idazkian aipatutakoaren erabat berdinak badira. Horretarako, interesatuak atxikipenari edo konturako sarrerari buruzko jarduketa edo omisio horiek jasorik dituzten agiriak aurkeztu beharko ditu hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi ondorengo egunetik aurrera.

Auzitegiak ebazpena exekutatzeko erabaki bat hartuko du, non ebazpenak ondorioa luzatu beharreko atxikipenari edo konturako sarrerari buruzko jarduketa edo omisio guztiak zerrendatuko diren, bidezko errekursoak ere.

3. sekzioa. Ebazpen judizialak exekutatzeko arau bereziak

71. artikulua. Ebazpen judizialak exekutatzea.

Justiziako auzitegien ebazpenak administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko araudiari jarraituz exekutatu dira.

Aipatu araudiaren eta exekutatzeko ari den ebazpen judizialaren aurka ez doan guztian, kapitulu honetako 1. sekzioan jasotakoa aplikatuko da.

72. artikulua. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren sententzien ondorioak luzatzea.

1. Zerga Administrazioak erantzuna emango die Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko Legeak 110. artikuluan jasotakoaren arabera egiten zaizkion errekerimenduei.

2. Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak bakarrik izango du eskumena errekerimendu horiei erantzuteko, luzatu nahi den sententzia irmoak emandako erabaki edo ebazpena deuseztatu badu, tramiteen edo prozedura ekonomiko-administratiboaren akatsen ondorioz.

II. kapitulua. Bermeen kostua itzultzea

1. sekzioa. Bermeen kostuaren itzulketaren hedadura

73. artikulua. Aplikazio eremua.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak, 33. artikuluan jasotakoaren arabera, bidegabekotzat hartutako egintza eman duen zerga administrazioak itzuliko du bermeen kostua.

Bidegabekotzat jo den egintza baten exekuzioa eteteko jarritako bermeen kostuen itzulketak bermea formalizatu, mantendu eta kitatzeko behar diren kostuak hartuko ditu barruan.

Ebazpen administratiboek edo sententzia judizialek auzipeko egintza partzialki bidegabekoa dela adierazten dutenean, bermearen kostuen zati proportzionala itzuli beharko da.

Hurrengo artikuluetan ezarritako prozedura gorago aipatu diren kostuen itzulketarako bakarrik aplikatuko da. Hala ere, behar diren baldintzak betetzen direnean, ordaintzera behartutakoak, bidezkoa baderitzo, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen IV. tituluaren aurreikusten duen ondare-erantzukizuneko prozedura aplikatzeko eskatu ahal izango du bestelako kostu edo kontzeptuei dagokienez.³⁴

74. artikulua. Kostua itzuli behar den bermeak.

Bermeen kostuaren itzulketarako eskubideak barruan hartuko ditu jarraian aipatuko diren bermeak, aplikaziozko araudiari jarraituz ematen badira eta onartzen badira:

- a) Kreditu entitate batzuen edo elkarrekiko bermerako sozietate batzuen abal edo fidantza solidarioak, edo kauzio aseguruak ziurtagiriak.
- b) Ondasun higikorren eta higiezinen hipotekak.
- c) Bahiak, lekua aldatuta edo lekua aldatu gabe.
- d) Administrazioak edo auzitegiek onartutako beste edozein.

75. artikulua. Bermeen kostua zehaztea.

1. Honako partida hauek sartuko dira bermeen kostuan:

a) Abal edo fidantza solidarioetan eta kauzio aseguruaren ziurtagirietan, kreditu entitateari, elkarrekiko bermerako sozietateari edo aseguru entitateari prima gisa, komisio gisa edo abala, fidantza edo ziurtagiria formalizatu, mantendu eta kitatzeko gastu gisa benetan ordaindutako kopuruak, horiek guztiak bermea itzuli arte sortu direnean.

b) Aurreko artikuluan aipatutako hipoteka eta bahietan, horien kostuak barruan hartuko ditu ondoko kontzeptuengatik ordaindutako kopuruak:

1.- Fede-emaile publikoak esku hartzeko gastuak.

2.- Erregistro gastuak.

3.- Bermea jartzeak eta, hala denean, hura kitatzeak zuzenean sorrarazten dituzten zergak.

³⁴ Paragrafo hau ekainaren 26ko 21/2018 Foru Dekretuaren artikulua bakarreko hogeita lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua aldatzen du, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/07/04ko GAO).

4.- Erregelamendu honetako 6. artikuluan aipatzen diren ondasunak bermetzat eskaintzen direnean horiek tasatu edo baloratzeko egiten diren gastuak.

c) Administrazioak edo auzitegiek aurretik aipatutakoez besteko bermeak onartzen dituztenean, horien kostuen itzulketa onartuko da, bakar-bakarrik, bermeak formalizatu, mantendu eta kitatzeko zuzenean egin eta bermea itzuli arte sortu diren kostu egiaztatuei dagokienez.

d) Dena dela, kostu horiek sortu diren egunetik (behar bezala egiaztatuta) itzulketa jasotzeko eskubidea aitortzen duen erabakia hartzen den egunera arte sortutako berandutza interesak ordainduko dira.

2. Bermea dirua gordailatuta eratu bada, eta aurreko apartatuko c) eta d) paragrafoak gordailua eratzeko kostuei dagokienez aplikatzea eragotzi gabe, indarrean dagoen berandutza interesa ordaindu beharko da harik eta itzulketa jasotzeko eskubidea onartzen duen erabakia hartu arte.

2. sekzioa. Bermeen kostua itzultzeko prozedura

76. artikulua. Organo eskudunak.

Hauexek izango dira zerga zorrak eteteko aurkeztutako bermeen kostua itzultzeko espedienteak tramitatzeo eta ebazteko organo eskudunak:

a) Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuan likidatutako zerga zorrak badira: bidegabekotzat hartutako zerga zorra kudeatzeko eskuduna den organoa.

b) Gipuzkoako Foru Aldundiko beste departamentu batzuek edo foru organismo autonomoek likidatutako zerga zorrak badira: departamentu horren edo foru organismo autonomo horren barruan eskuduna den organoa.

77. artikulua. Prozedura hastea.

1. Interesatuak eskatuta hasiko da prozedura. Interesatuak idazkia aurkeztu beharko dio ebazteko eskumena duen organoari. Idazkiak foru dekretu honek 2. artikuluan aipatzen duen edukia izango du, bai eta kontu kodearen zenbakia ere.

2. Itzultzeko eskaerarekin batera, datu edo agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Exekuzioa eten zen egintza administratiboa edo zorra erabat edo zati batean bidegabekotzat hartu zuen ebazpen administratiboaren edo sententzia judicial irmoaren kopia.

b) Itzultzeko eskatu diren bermeen kostuaren zenbatekoaren kreditazioa, eta ordainketaren benetako dataren adierazpena.

c) Konpentsatzeko eskaera bat, hala badagokio, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamenduak aurreikusitako eran.

78. artikulua. Tramitatzea.

1. Prozedura tramitatzen duen organoak behar diren jarduketak egin ditzake eskatzen den itzulketaren bidezkitasuna egiaztatzeo, eta beharrezkotzat jotzen dituen txosten eta jarduketak eskatu ditzake.

2. Eskaera idazkiak aurreko artikulua 1 apartatua aipatutako datu guztiak ez baditu edo 2.b apartatua eskatutako agiri guztiak eransten ez bazaizkio, hura zuzendu behar da erregelamendu honetako 2.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

3. Zuzentzeko emandako epea luzatu daiteke, interesatuak hala eskatuz gero, baldin eta eskatzen diren agiri guztiak aurkezteko zailtasun bereziak eta behar bezala egiaztatuak badaude.

4. Jarduketak amaiturik, ebazpen proposamena egin aurretik, interesatuari entzutea emango zaio, bere eskubiderako komenigarritzat jotzen duena alegatu ahal izan dezan.

Dena den, prozeduran eta ebazpenean ez bada bestelako gertaera edo alegaziorik agertzen edo kontuan hartzen interesatuak aurkeztutakoak baino, entzute emateko tramitea alde batera utzi daiteke.

79. artikulua. Prozedura ebaztea.

1. Organo eskudunak ebazpena emango du eta sei hilabeteko epean jakinaraziko du, interesatuaren eskaera-idazkia ebazteko eskumena duen organoaren erregistroan sartzen den egunetik aurrera.

2. Tramitazio egintzen ondorioz bidezkoa bada jarritako bermearen kostua itzultzea, 75. artikuluan aipatutako kopuruak itzultzea erabakiko da, behar bezala egiaztaturik badaude eta osorik edo zati batean bidegabekotzat jo den egintzaren etendurari badagozkio.

3. Jakinarazpena egiteko epea igarotakoan, jakinarazpenik egin ez bada, interesatuak eskaera ezetsi zaiola pentsatu dezake, ustezko ebazpenaren aurka bidezko errekurtsio edo erreklamazioa jartze aldera. Administrazioak emango du epea amaitu ondorengo ebazpen espresua, isiltasunaren zentzuari batere lotu gabe.

4. Prozedura honi amaiera ematen dion ebazpena administrazioarekiko auzibidean erreklamatu daiteke, hautazko berraztertze errekurtsioa jarri ondoren.

80. artikulua. Exekutatzea.

Behin bermearen kostua itzultzeko eskubidea onartzen duen ebazpena emanda, bidezko ordainketa agindua emango da pertsona edo entitate hartzekodunaren alde, 77. artikuluan jasotakoaren arabera bidezkoa den bitartekoa erabilita.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENA. Izaera publikoko beste sarrera batzuk itzultzea.

Erregelamendu honetan okerreko sarrerak itzultzeko prozedurari buruz jasotako xedapenak ordeko gisa aplikatuko dira zergak ez diren izaera publikoko sarreraren kopuruak itzultzean.

BIGARRENA. Zuzenbide publikoko beste diru sarrera batzuen bilketa kudeatzeko egintzak.

Erregelamendu honen xedapenak aplikaziozkoak izango zaizkio Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskudunek bilketa kudeatzeko gauzatutako egintzei, baldin eta

horiek lotuta badaude zuzenbide publikoko beste zor batzuei edo xedapen espresua edo berariazko hitzarmena dela medio bildu beharreko zorrei.

HIRUGARRENA. Udal zergen arloko erreklamazio ekonomiko-administratiboak.

1. Gipuzkoako udalei dagozkien zergen aplikaziorako eta zerga zigorren ezarpenerako egintzei buruzko erreklamazio ekonomiko-administratiboetan, baldin eta Gipuzkoako Udal Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak 14.1 artikuluan jasotakoaren arabera jarri badira, erregelamendu honetan jasotako prozedurari jarraitu behar zaio, ondorengo apartatueta jasotako berezitasunak kontuan hartuz.

2. Kasu horietan ezinezkoa izango da Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak erreklamazioak banaka ebaztea, salbu Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak jasotako onartezintasun edo artxibatze kasuetan.

3. Etendura automatikoaren arloan, erregelamendu honek jasotako arauak izango dira gidari. Beste etendura kasu batzuetan, aldiz, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak 14.2 artikuluan jasotakoa bete behar da.

4. Espediente administratiboa, bai eta ikusgai jarri ondoren, hala badagokio, interesatuek aurkeztutako alegazioak ere, auzipeko egintza eman zuen udalari bidaliko zaizkio, hilabeteko epean haren eskubiderako komeni diren alegazioak aurkeztu eta egoki iritzitako frogak ekarri edo proposatu ditzan.

Froga berriak aurkezten badira edo udalak proposatutako froga egiten bada, hamabost eguneko epean erreklamatzailerari helaraziko zaio, puntu horiei buruzko alegazioak aurkeztu ditzan.

Tramite hori alde batera utzi daiteke erreklamazioa ez onartzeko arrazoiren bat gertatzen denean edo udalak horri uko egiten badio espediente administratiboa igortzean.

LAUGARRENA. Zuzenbidean erabat deuseza deklaratea Gipuzkoako udalek tramitatutako espedienteetan.

Gipuzkoako udalek tramitatutako zuzenbidean erabat deusezak diren egintzak berrikusteko prozeduretan, erregelamendu honek 16.1 artikuluan aipatzen duen irizpena Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari eskatuko zaio, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legeak jasotakoaren arabera.

Deuseztasuna aitortzeko ezinbestekoa izango da aldeko irizpena jasotzea.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

LEHENA. Etetea bide administratiboan berrikusteko prozeduretan.

Erregelamendu hau indarrean jarri aurretik aurkeztutako gerorapen eskaerak aurkezpen unean indarrean zegoen araudiari jarraituz tramitatuko dira, eskaera horiek amaitu arte.

BIGARRENA. Okerreko sarreren itzulketa.

Erregelamendu hau indarrean jarri baino lehen hasita dauden zerga izaerako okerreko sarrerak itzultzeko espedienteak orain indarrean dauden xedapenei jarraituz tramitatu eta ebatzi behar dira.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak onartzen duen erregelamenduak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- ***Maiatzaren 20ko 34/2008 FORU DEKRETUA, Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoa (2008-05-30ko GAO).***
 - Bere amaierako lehen xedapenak 38. artikuluko seigarren apartatua aldatzen du.

- ***Uztailaren 2ko 397/2013 Epaia, Euskal Autonomia Erkidegoko Justiziako Auzitegi Nagusiak emana (Ediktoa 2013-09-18ko GAOn argitaratu da). Maiatzaren 20ko 34/2008 FORU DEKRETUA, Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoa (2008-05-30ko GAO).***
 - Bere epaitzak 58. artikuluko 4. apartatua zuzenbidean erabat deusez deklaratu du.

- ***21/2018 Foru Dekretua, ekainaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baita Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egin tzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua (2018/07/04ko GAO).***
 - Bere artikuluko bakarrak prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 2. artikuluko 1. apartatuko e) letra eta artikuluko horren 2. apartatua.
 - 2 bis artikulua berria gehitzen du.
 - 3. artikuluko 1. apartatua.
 - 4. artikuluko 2. apartatua.
 - 5. apartatu bat gehitzen dio 4. artikuluari.
 - 7.1. artikuluko a) letra.
 - Azken paragrafo bat gehitzen dio 9. artikuluko 7. apartatuari.
 - 21. artikuluko 4. apartatua.
 - 38. artikuluko 7. apartatua.
 - IV. tituluaren I. kapituluko 3. sekzioaren izenburua.
 - 46 bis artikulua gehitzen dio IV. tituluaren I. kapituluko 3. sekzioari.
 - 47. artikulua.

- 50. artikuluko 1. apartatua.
 - 51. artikuluko 3. apartatua.
 - 54. eta 55. artikulua.
 - 56. artikuluko 5. apartatua ezabatzen da, eta 1. apartatua aldatzen da.
 - 57. artikuluko 2. apartatua.
 - 58. artikuluko 2. apartatua.
 - 61 bis artikulua berria gehitzen du.
 - 64. artikulua.
 - 67. artikuluko 2. apartatua.
 - 69. artikulua.
 - 73. artikuluko azken paragrafoa.
- **12/2021 Foru Dekretua, urriaren 5ekoa, Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen dituena (2021/10/08ko GAO).**

Bere 2. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:

- Edukirik gabe uzten da 55. artikulua 2. apartatua.
- Ezabatu egiten da 61 bis artikulua.
- Erantsi egiten da 63 bis artikulua IV. tituluaren II. kapitulu 2. sekzioaren 3. azpisekzioaren barruan.

- **18/2022 Foru Dekretua, azaroaren 22koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamendua, sozietateen gaineko zergaren erregelamendua eta zerga berrikuspenaren erregelamendua aldatzen dituena. (2022/11/28ko GAO)**

Bere 3. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu argitaratu eta biharamunean:

- 63 bis.1 artikuluko a) letra.
- 63 bis artikuluko 2. apartatua.

- **56/2023 Foru Dekretua, abenduaren 12koa, zenbait zerga erregelamendu aldatzen dituena (2023/12/18ko GAO).**

Bere 1. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:

- 8. artikulua 3. apartatua.
- 10. artikulua 1. apartatua.

